


Poza, garailearen etxean

EH Bilduk irabazi ditu udal hauteskundeak gehiengo osoz.
Izaro Elorza izango da Oñatiko alkate berria.





UDAL HAUTESKUNDEAK 2019

Gehiengo osoa berretsi du EH Bilduk

- Gehiengo osoari eutsi dio EH Bilduk
- Bozkek galdu arren, zinegotzi kopurua mantenduko ditu EAJ-k
- PSE-EE-k ez du ordezkaritzarik izango udalean
- Parte-hartzeak gora egin du (%73)

Ekainaren 15ean hartuko du aginte makila Iزارo Elorzak

Iزارo Elorza izango da Oñatiko alkate berria, Mikel Biainen lekukoa hartuz. EH Bilduk argi eta garbi irabazi zituen maiatzaren 26ko Udal Hauteskundeak, 10 zinegotzi lortuz eta azken bi agintaldietan izan duen gehiengo osoa berretsiz.

Koalizio abertzaleak orain arteko emaitzarik onena lortu zuen, 3.620 boto batuta (%56,26), orain dela lau urte baino 483 gehiago, eta 2011n ezarritako langa (3.308 bozka) gaindituz. Orduan bezala, EH Bildu alderdi bozkatuena izan zen Oñatiko 15 hautes-mahaitan.

Iزارo Elorza zerrendaburuak adierazi zuen emaitza hauek sendotu eta kontsolidatu egiten duela EH Bilduren aukera. "Duela lau urte baino 483 boto gehiago jaso ditugu eta, beraz, herritarren gehiengoak argi eta garbi esan du gustuko duela EH Bilduren azken zortzi urteetako gobernu eredua, eta guk ere norabide horretan jarraituko dugu". Elorzak eskerrak eman zizkien lantalde berri honengan konfiantza jarri duten herritar guztiei. "Saiatuko gara neurria ematen". Azken lau urteetako udal gobernuak kideak ere oso pozik zeuden emaitzekin, herritarren gehiengoak babestu eta, nolabait, saritu egin duelako udalak azken lau urteetan egindako lana.

EAJ ELKARLANERAKO PREST

EAJ izan zen bigarren alderdia 2.356 botorekin (% 36,66), 2015ean baino 119 gutxiago. Hala ere, eserleku kopuruari eutsi diote jeltzaleek, 7 zinegotzirekin. Bototan jaitsi arren, Ainhoa Galdos zerrendaburuak positiboki baloratu zituen emaitzak. "Lantalde sendoa osatu dugu eta ilusioa dugu herriaren alde lana egiteko eta EAJ indartzen jarraitzeko" esan zuen.

Iزارo Elorza zoriondu zuen Galdosek, lortutako emaitzengatik, eta elkarlanerako eskua luzatu zion. "Oposiziotik egingo dugu lan

«Herriaren gehiengoak argi eta garbi esan du gustuko duela EH Bilduren gobernu eredua, eta guk ere norabide horretan jarraituko dugu»

IZARO ELORZA
EH BILDU

«Elkarlanerako prest gaude. Oposiziotik egingo dugu lan herriaren alde eta oñatiar guztien ongizatearen alde, oposizio eraikitzailea eginez»

AINHOA GALDOS
EAJ-PNV

Oñatiren alde eta oñatiar guztien ongizatearen alde, oposizio lan eraikitzailea eginez". Galdosek eskerrak eman zizkien EAJren aldeko botoa eman duten herritar guztiei.

PSE ORDEZKARITZA GABE

Alderdi sozialista ordezkari gabe geratu da. PSEk 319 boto (%4,95) jaso zituen, orain dela lau urte baino 105 gehiago, baina 19 botoren faltan geratu ziren eserlekua lortzeko. EAJrentzat izan zen azken zinegotzia. Penaz, baina, hala ere, alde positiboa azpimarratu nahi izan zuen Aitziber Fernandez zerrendaburuak. "Normalizazio politikoaren aldeko urrats bat gehiago eman dugu aurkezte hutsarekin. Jende askoren zorionak jaso ditut aurpegia eman dudalako, eta horrekin geratzen naiz".

Horrenbestez, ez da aldatuko udalaren osaera: EH Bilduk 10 zinegotzi izango ditu, eta EAJk 7. Aurpegi berri ugari egongo da, baina udalbatzak kolore bikoia izaten jarraituko du.

UDALBATZA BERRIA, EKAINAREN 15EAN

Ekainaren 15ean egingo da udalbatza berria eratzekeko batzar berezia. Zinegotzi guztiak beraien karguaren jabe egingo dira eta, jarraian, alkatea izendatzeko bozketa egingo da.

Hortik aurrera, hilabeteko epea izango dute Debagoieneko udalek Mankomunitaterako bere ordezkariak izendatzeko. Oñatiri hiru ordezkari dagozkio, biztanle kopuruaren arabera. Azken lau urteetan EAJren esku egon da eskualdeko udalen elkarteko gobernuak, baina Bergarako udala EH Bilduk eskuratu izanak indar korrelazioa aldatu du eta, ziurrenera, koalizioaren esku geratuko da Mankomunitatea.

Gogoratu, bestalde, Batzar Nagusiei dagokienez, Oñatik bi ordezkari izango dituela: Mikel Biain (EH Bildu) Gipuzkoakoan, eta Izaskun Moia (EAJ) Arabakoan. ■

HAUTESKUNDEAK ZENBAKITAN

UDAL	2015	2019
EH Bildu	3.137	3.620
EAJ	2.475	2.359
PSE-EE	214	319
PP	88	-
Abstentzia	2.795	2.443

BATZAR	2015	2019
EH Bildu	2.896	3.349
EAJ	2.388	2.420
PSE-EE	250	305
Podemos	320	232
PP	105	97
Abstentzia	-	2.383

EUROPA	2015	2019
EH Bildu	1.981	3.148
EAJ	1.456	2.290
PSE-EE	192	371
Podemos	87	295
PP	132	101
Abstentzia	-	2.493

* Udal hauteskundeetan parte hartzea %72,48koa izan da Oñatin, 2015ean baino 5 puntu handiagoa.



"Institutuko ateak
zabalduta behar
dizkiogu euskal
gizarteari"

NOÉ CORNAGO
LSNEko zuzendari zientifikoa

Lege Soziologia Institutuak 30 URTE

Biltzar berezia egingo da Oñatin **ekainaren 19tik 21era**, Lege-Sociologaren Nazioarteko Erakundearen 30. urteurrena ospatzeko. Mundu zabaleko **300 adituk** parte hartuko dute, 'Belaunaldiak elkartuz, justizia globalerako' izenburua duen kongresuan.



Unibertsitate zaharrean egoitza duen Lege-Soziologiaren Nazioarteko Erakundeak (LSNE) 30 urte betetzen ditu, eta hori ospatzeko biltzar berezia egingo da ekainaren 19, 20 eta 21ean, 30 herrialde ezberdinetako 300 partaiderekin. Noé Cornago (Oberhausen, Alemania, 1965) zuzendari zientifikoarekin hitz egin dugu institutuaren orainaz eta, batez ere, etorkizuneko erronkez.

30 urteko ibilbideak merezi du ospakizuna.

Bai, biltzar berezia antolatu nahi izan dugu 30. urteurrenari distira emateko eta, egiari zor, harrera oso ona izan du. Leku aldetik ditugun mugak direla-eta itxi egin behar izan dugu izen-ematea, eta 300 inguru parte-hartzaile izango ditugu, 30 bat herrialde ezberdinetakoak.

Institutuaren egoitza den *Sancti Spiritus* unibertsitateaz gain, Santa Ana, kultur etxea, udaletxeko aretoa eta Gipuzkoako Artxibo Historikoa ere erabiliko ditugu batzarretarako. Eskerrak eman nahi dizkiot udalari bere eskuzabaltasunagatik. Erronka handia da tamaina honetako biltzar bat antolatzea, eta espero dut Oñatiren onerako izatea.

'Linking generations for global justice' da biltzarraren izenburua. Zer landuko duzue?

Belaunaldi arteko trantsizioan ipini nahi dugu fokua, zuzenbidea eta gizartearen arteko harremanak sortzen dituen arazoekiko pertzepzioak nola eboluzionatzen duen aztertzeke. Maila globalean gertatzen ari diren fenomenoek (klima aldaketa, migrazioak, berdintasuna, lan-harremanen eraldaketak, familia eredu berriak, iraultza digitala...) erronka handiak planteatzen dituzte zuzenbidearen soziologiarentzat, eta helburua da belaunaldi ezberdinetako adituek arazo horien inguruan dituzten ikuspuntuak partekatzea eta

elkarlana sustatzea, ikerketa eta teorizazio berritzaileak bultzatzeko asmoz.

Bi urtez (2018-2020) izango zaitugu LSNEko zuzendaria. Zertan utzi nahiko zenuke arrastoa?

LSNEko zuzendari kargua bi urterako izaten da eta, beraz, ez da erraza aldaketa sakonak egitea. Hau fundazio bat da eta organo gorena den patronatuan adosten dira erabaki garrantzitsuak.

Zuzendariaren ardura nagusia da bikaintasuna bermatzea arlo akademiko-zientifikoan. Baina, horrez gain, ahalegin berezia egin nahi dugu institutuaren eta euskal gizartearen arteko harremana sendotzen. Insitutu honek lan bikaina egin du hiru hamarkadatan eta prestigio handia du nazioarte mailan, baina euskal gizarteari lan hau transmititzen eta ikusarazten lan egin behar du.

Horregatik, ahalegin berezia egin nahi dugu institutuaren harreman-sarea berritzen eta elkarlanerako bide berriak esploratzen gure inguruko erakunde instituzional eta akademikoekin.

Ildo horretan ulertu behar dira EHUrekin eta Ikerbasquerekin sinatu dituzuen hitzarmenak?

Euskal Herriko Unibertsitatea-rekin harreman esparru zabala dugu. Alde batetik, babes instituzionala ematen digu, ofizialtasuna aitortzen baitio gure masterrari. Baina, horrez gain, orain adostu ditugu EHU eta Ikerbasquerekin egindako hitzarmenean, Institutuko Zientzia Zuzendariaren deialdiaren oinarri berriak. Gainera, gure ikasleek EHUko liburutegiko funtsa erabili ahal izango dute.

Deustu eta Mondragon unibertsitateekin ere harremanetan gaude, eta gustatuko litzaiguke elkarlanerako bideak finkatzea.

Ikerbasque-rekin sinatu dugun hitzarmena ere oso inportantea da. Zientziaren, berrikuntzaren eta teknologiaren euskal sareko kide den neurrian, nazioarte mailako ospea duten ikerlariak insti-



Lege-Soziologia Institutuaren JARDUERA

NAZIOARTEKO MASTERRA

Urtero 15 bat ikaslek egiten dute lege-soziologia masterra Oñatin. Irailetik apirilera bitartean egoten dira gure artean. Hogeita hamar urtetan 460 bat ikasle eta 170 irakasle pasa dira bertatik, 70 bat herrialde ezberdinetakoak.

WORKSHOP EDO MINGTEGIAK

Master programa amaitu ondoren, apiriletik uztaileira, bi eguneko batzar zientifikoak antolatzen dira astero. Nazioarte mailako 15-20 adituk parte hartu ohi dute. Horrez gain, kongresu bereziak ere antolatzen dira. Apirilean, adibidez, lan munduaren etorkizunari buruzkoa egin zen, OITren (Organización Internacional del Trabajo) 50. urteurrenaren harira.

ARGITALPENAK

Bi aldizkari ditu institutuak: *Oñati Socio-Legal Series* eta *Sortuz*. Biak nazioartekoak eta harrera oso ona dutenak mundu akademikoan. Gainera, bi liburu bilduma argitaratzen ditu, bat ingelesez (Bloomsbury-Hart argitaletxearekin) eta beste gazteleraz (Dykinson-ekin); 61 eta 30 liburu dituzte, hurrenez hurren.

IKERTZAILE BISITARIAK

Urtean zehar lan espezifikoa egitera etortzen diren ikerlariak hartzen ditu Oñatiko Lege-Soziologia Erakundeak. Asteak edo hilabeteak ematen dituzte bertan. 30 urte hauetan 615 ikertzaile pasa dira bertatik; batzuk behin baino gehiagotan.

LIBURUTEGIA

Munduko onenetakoa da arlo sozio-juridikoan. Mundu osoko ikertzaileak datoz propio hemengo fondoak kontsultatzera. Katalogatutako 21.000 liburu baino gehiago daude eta 557 aldizkari titulu. Datu-baseak 108.000 erreferentzia bibliografiko ditu eta 19.600 baliabide elektroniko (PDF, EBook...). Orain, gainera, EHUko liburutegiarekin hitzarmena du institutuak, eta bi erakundeetako erabiltzaileek bietako fondoetara sarbidea dute.



tutura ekartzeko aukera irekiko digu, eta horrek, aldi berean, Europar Batzordearen finantziazioa eskuratu ahal izateko atea zabaltzen dizkigu, maila handiko ikerketa proiektuak burutu ahal izateko Oñatiko lege-soziologia institutuan.

2007ko krisi ekonomikoaren ondorioz nabarmen murriztu zen LSNEaren aurrekontua. Zertan eragin du?

Krisi garaiko Eusko Jaurlaritzako aurrekontu mozketak nabarmen eragin zuten erakundean. Hala ere, arlo zientifikoa ez da ahuldu. Erronka handia izan da lantalde osoarentzat, baina institutuaren aktibitate maila bere horretan mantentzea lortu dugu (argitalpenen kalitatea, bilera zientifikoak...).

Azpiegituretan inbertitzeko ahalmenean galdu dugu, eta, jakina, hona etortzen diren irakasle eta adituen bidaia gastuak arrazionalizatu behar izan ditugu. Baina denek ulertu dute hala behar duela izan, eta denon laguntzari esker lortu dugu aktibitate mailari eustea.

Kargua hartu berrikan idatzi zenuen gutunean esaten duzu trantsizio aldiaren murgilduta dagoela LSNEa. Zer esan nahi duzu?

Lege-soziologia institutua sortu zen nazioarteko proiektzioa izateko. Horretan ez dago dudarik. Baina horri uko egin barik, uste dut euskal gizartearen baitan aldarrikatu behar duela orain bere burua. Erakutsi behar dugu euskal gizarteari ere zerbitzu bat eskaintzen diola institutuak, arazo ezberdinen inguruko diagnostikoak eginez eta irtenbideak proposatuz; jakintza arlo ezberdinetan punta-puntako adituak diren pertsonak euskal gizartearen zerbitzura ipiniz.

Hori da LSNEk egin behar duen trantsizioa. Institutuko atea euskal gizartera irekitzeko unea da. Hemen aztertzen diren gaiak, hemen egiten den lana euskal gizartearentzat sozialki aberasgarri izatea lortu behar dugu.



Noé Cornago,
lege-soziologia
institutuko
liburutegiko
gela nagusia

"Institutuak izen handia du nazioarte mailan, baina euskal gizartearen proiektzio handiagoa izan dezan lortu nahi dugu. Gure herriarentzat erakargarria eta sozialki aberasgarria izatea lortu behar dugu"

"Hirugarren adinekoentzako Esperientzia Gelak institutuan bertan irekitzeko aukera aztertzen ari gara udalarekin batera. Uste dut oso positiboa izango litzatekeela Oñatirentzat eta Debagoiena osoarentzat"

Institutuan aztertzen diren gaiak lotura zuzena dute herritarren eguneroko kezka eta arazoekin (lana, familia ereduak, migrazioa, berdintasuna, klima aldaketa, askatasuna...), eta mundu mailan aplikatzen diren politika askoren oinarrian daude. Baina lan horrek euskal gizartearen proiektzio handiagoa izan dezan lortu nahi dugu.

Proiektu zehatzik ba al duzue esku artean?

Oñatirentzat eta Debagoiena osoarentzat interesgarria izan daitekeen proiektu bat ari gara

lantzen udalarekin elkarlanean. Asmoa da, hirugarren adinekoentzako Esperientzia Gelak irekitzea hemen, institutuan. Donostia aldean ondo funtzionatzen ari dira, baina urruti samar gelditzen dira Debagoieneko bizilagunentzat. Egin kontu, hamar urte barru gizartearen %40ak 60 urtetik gora izango dituela. Beraz, uste dut oso positiboa izango litzatekeela era hone-tako zerbitzu berri bat martxan jartzea, eta institutuak berak ere proiektio handiagoa izango luke bailaran.

Oñatiko udalarekin lehen hartu-emanak izan ditugu, eta espero dugu EHUren babesa ere izatea proiektu garrantzitsu hau aurrera atera ahal izateko.

Horrez gain, herriko gizarte sektore ezberdinei zuzendutako hitzaldi eta ekitaldi ezberdinak antolatzeak aukera aztertzen ari gara. Geuk antolatutakoak, edo herritarrek beraiek proposatutakoak. Gure helburua da herritarrek erakartzea institutura, hemengo liburutegiaz eta bestelako azpiegiturez baliatzea, eta, hitz batean esanda, institutua beraiena bezala sentitzea. Horrek zentzu berria emango lioke institutuari; herriak ikustea hemen zerbitzu interesgarria eskaintzen zaiela, eta mundura irekitako leiho bat. ■

ESKER ONEZ

Noé Cornagok
eskerrak eman nahi
dizkio Foru Aldundiari
Sancti Spiritus
unibertsitateko
egoitza zoragarria
uzteagatik
Lege-Soziologia
Institutuentzat,
eta Oñatiko udalari
Antixena uzteagatik

'Erreferendumaren aldeko herri ekimena' aurkeztuko dute Oñatin ekainaren 12an

Gure Esku taldeko bozeramale berriek, Amalur Alvarezek eta Josu Etxaburuk, aurkeztuko dute ekimena kultur etxean

Gure Esku dinamika etapa edo ziklo berri bati hasiera eman zion martxoaren 31n Bilboko Euskaldunan egindako ekitaldian. Gure etorkizuna erreferendum bidez erabakitzea posible egitea da etapa berri honen helburua, eta hori gauzatu ahal izateko herri ekimena jarri da abian, ahalik eta herritar, gizarte-eragile eta instituzio gehienak elkarlanean jartzeko helburuarekin. GureEsku taldeko bozeramaleak Oñatin izango dira ekainaren 12an (kultur etxean, 19:00) etapa berriaren nondik norakoak azaltzen. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Josu Etxaburu eta Amalur Alvarez, GureEsku taldeko bozeramaleak (Argk.: EITB)

'Ezer ez denean ziurra, dena da posible'

GureEsku (Oñati)



Lierni Olmedo, Xabi Gesalaga eta Xabi Etxebarria, Oñatiko **GureEsku** taldeko kideak

Bueltan gatoz. Inoiz joan ez bagara ere, Gure Esku Dago ekimena, aro berri baten aurrean, eta lehen egindako lanarekin harro, bueltan da. Esan bezala, aro berria zabaltzen dugu eta estreinatuko ditugun gauzen artean gure deitura berria. Hemendik eta aurrerantzean GureEsku markarekin ekingo diogu lanari.

Ilusioz, erronka eta helburu berriak eskaini eta proposatuko ditugu, euskal jendarte anitz eta koloretsu honen aurrean, beti ere gure azken helburua zein den ahaztu gabe, hau da, Euskal Herriak bere etorkizuna, libre erabakitze eskubidea izatea. Nola ez, GureEsku ekimenak hain berea eta oinarritzekoak dituen ezaugarriak, ilusio eta jai izpiritua ahaztu gabe.

Hasiera ematera goazen garai berri honi, ongi etorria eman asmoz, datorren **Ekainaren 12an, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan Kultur etxeko zinema aretoan, ERREFERENDUMAREN ALDEKO HERRI EKIMENA aurkeztuko dugu.** Angel Oiarbide eta Zelai Nikolasen oinordekotza jaso duten **Amalur Álvarez** eta **Josu Etxaburu** bozeramaileen eskutik.

Euskal Herriko erabakitze eskubidearen aldeko herri mugimendu hau, 2013ko ekainean, Irunen aurkeztu zenetik, zuen babesa, bultzada sentitu dugu, eta ziur gaude etorkizunean ere horrela izango dela. Honen aurrean, eta bihotz-bihotzez, mila esker GureEsku-ren bidelagun izatearen aukera egin duzuen Oñatiar guztioi.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI



ELKARREKIN EKITEN

Ekintzailletza sustatzea du helburu Udalak eta Enpresagintza fakultateak antolatzen duten **Elkarrekin Ekin** programak. Bigarren edizioan hamabi lagun aritu dira **negozio ideiak** garatzen.

Bigarren urtez jarraian ELKARREKIN EKIN programa antolatu dute Oñatiko udalak eta Enpresagintza fakultateko Mondragon Team Academy-k, ekintzailletza sustatzeko helburuarekin. Ekintzaileen arteko komunitatea sendotzea da helburua, elkarrengandik ikasteko, elkarri laguntzeko, eta sortzen diren ideia eta negozio aukerak aurrera ateratzen laguntzeko.

Helburu horrekin, hainbat hitzaldi eta tailer antolatzen dira urte osoan zehar, ekintzaileek dituzten premia eta beharrei erantzuteko: fiskalitatea, kontratuak, finantziario iturriak, *Pitching* bidezko

komunikazioa, datuak babesteko legea, *branding*-a, bezeroekiko harremana...

IDEIAK GARATZEKO PROGRAMA

Formazioa eskaintzeaz gain, negozio ideiak garatzeko tailer praktikoa ere egin dute *Elkarrekin Ekin* programaren baitan. Martxotik maiatzera bitartean hamabi lagunek jardun dute negozio aukera berriak lantzen, edota martxan dauden enpresetan ideia berriak inplementatzeko aukerak aztertzen.

Desing Thinking metodologia aplikatuz, bederatzi proiektu landu dituzte, Enpresagintza fakultateko tutoreen la-

guntzarekin; hasierako planteamendua egokia ote den ikusi eta bezero potentzialen iritziak kontuan hartuz, proiektuak kontrastatu, testean eta definitzen joatea izan da helburua.

Aurreratuen dauden proiektuek *Start Up Process* programan parte hartuko dute irailetik aurrera, negozio ideiak azkartu eta martxan jartzeko asmoz.

Antolatzaileek positiboki baloratu dute ideiak garatzeko programaren bigarren edizioa, harreman estua sortu delako ekintzaileen artean eta ideia berriak ere atera direlako hartu-eman horretatik.



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 Oñati - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Bertitze Iñurritegi
Oñati

Gure kafetegiarri balio erantsi bat emateko gogoz etorri naiz. Ideia argirik ez neukan, baina buruari bueltak ematen, galderak egiten eta besteen iritziak entzunda, Gosari Osasungarriekin apustua egitea erabaki dut. Jogurta, arroz-krema, sasoiko frutak, zerealak... nahieran konbinatuz gosari edo askari osasungarria hartzeko aukera izango dute bezeroek. Osagai bakoitzaren ezaugarri eta onuren inguruko informazioa ere izango du eskura. Bezero berriak erakartzea da helburua. Oso aberasgarria izan da *Elkarrekin Ekin* programa.



Claudia Valdivieso
Oñati

Modako zapata eta erropa denda bat daukat, baina erakusleihoak ez du kalera ematen eta, beraz, dendari ikusgarritasuna emateko ideia eta aukera berrien bila etorri naiz. Eta egia esan oso interesgarria izan da tailerra. Buruari hainbat buelta emanez eta taldekideen ikuspun-

tuak entzunez, ideia ezberdinak atera ditut, hala nola: saltzen ditudan produktuekin identifikatuko nauen marka edo logotipo bat sortzea; erdiguneko kaleetan hutsik dauden lokaletako eskapareak erabiltzea nire produktuak erakusteko... Oso interesgarria izan da.



Nagore Goñi
Oñati

Argazkilaritza estudio bat irekitzeko ideiarri bueltak ematen nenbilen aspaldian, eta proiektu horri forma eman eta gehiago zehazteko gogoz etorri naiz. Barruan neuzkan ideia horiek denak mahai gainera atera, kontrastatu eta garatzea zen helburua, eta oso positiboa izan da. Detalle batzuk fintzeko aukera eman dit tailer honek eta pozik nago.



Alberto Vesga
Oñati

Eguneroko dinamikan burubelarri sartuta egoten gara gure negozioetan, eta ez dugu denborarik hartzen perspektiba ireki eta hausnarketak egiteko. Eta horretarako

balio izan dit tailer honek; hau da, ordu batzutan behintzat gelditu eta negozioaren martxaren inguruko gogoeta egiteko. Guk dendak ditugu, eta azoka ezberdinetan (Oñati, Ordizia...) ere egoten gara, eta, azken batean, helburua izan da aztertzea zer egin dezakegun zerbitzua hobetzeko, eta online bidezko salmentan urratsak emateko. Hainbat ideia atera ditut, eta positiboa izan da sektore ezberdinetako pertsonen ikuspuntuak ezagutzea.



Vilma Soto
Oñati

Online bidezko salmentari bultzada ematea eta sare sozialetako presentzia areagotzea zen hasierako ideia, tailerrera etorri nintzenean, baina hemen ikusi eta entzundakoarekin, aldatuz joan da ideia hori. *Hirukar* dendari bultzada ematea eta belau-naldi berriak erakartzea da helburua, eta asmo horrekin bigarren eskuko liburu, jostailu eta beste produktu batzuen elkartrukea egiteko zerbitzua jarriko dugu martxan.



Amaia eta Renata
Madril

Lagun batzuen bitartez jakin genuen Oñatiko udalak eta Enpresagintza fakultateak *Elkarrekin Ekin* programa antolatzen dutela, eta bertara etortzea pentsatu genuen, esku artean dugun negozio ideiarri azken bultzada emateko asmoz. Kefir-a etxean prestatu ahal izateko lanabes bat merkaturatzea da esku artean darabilgun proiektua. Horrekin batera, interneteko gune bat sortu eta sare sozialak baliatzeko asmoa ere badugu, kefir-ari buruz hitzegiteko: onurak, errezeta ezberdinak...



Jaione Moreno
Eibar

Duela urtebete Eibarren martxan dugun *Coworking* gunearen inguruan hausnarketa egin eta bultzada bat emateko asmoz etorri naiz. Aholkularitza zerbitzu bat daukagu Eibarren, eta pentsatu genuen *coworking* gune bat eskaintzea inguru hartako ekintzaileei, nolabaiteko ekintzaile komunitate bat sortzeko helburuarekin, baina ez du izan espero genuen erantzuna; beraz, proiektua birpentsatu eta aukera ezberdinak esploratu nahi ditugu proiektua sendotzeko. Interesgarria izan da tailerra; tresna batzuk (prototipoa lantzea...) berriak izan dira niretzat eta, gainera, unibertsitateko gazteekin harremanetan egotea ere oso lagungarria izan da.



Rudolf Reinstadlerrek
beste 11 kideekin batera
sortu zuen enpresa
1969ko ekainaren 24ean

STADLERek

50 urte betetzen ditu

Ekainaren 30ean ate irekien eguna antolatuko du, instalazioak erakusteko eta jendeari azaltzeko nola egiten dituzten pieza metalikoak hautsetik abiatuta. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Sinterizazio prozesuaren bidez, burdin, brontze edo altzairu hautsarekin automoziorako pieza metalikoak egiten dituzte Stadler-en

Zorioneko dago **STADLER**. Zorioneko, 50 urte betetzen dituelako eta, batez ere, urte zailak gainditu ostean, etorkizunari baikor begiratzeko moduan dagoelako. Duela hamar urte apustu sendoa eta inbertsio handia egin zuen enpresak automozioaren sektorerara jauzi egiteko, eta urte zailak igaro ostean, hasi da egindako ahaleginaren fruituak jasotzen.

50 URTEKO IBILBIDEA

1969ko ekainaren 24ean eratu zuen enpresa Rudolf Reinstadlerrek, beste 11 kideekin batera. Angel Elorza oñatiarra izan zen lehenengo lehenakaria, Angel Aranzabal gasteiztarra bigarrena, eta Rudolf bera hirugarrena, gaur egun arte.

Austriarra sortzez, bi urte lehenago Polmetasara lanera etorria zen Rudolf, eta bere enpresa propioa sortzea erabaki zuen hauts-metalurgiarekin teknika aplikatuz. Lantegi txiki bat sortzea omen zen asmoa, Rudolfek berak aitortu digunez, baina denborarekin ikusi zuen, hazi ezean ez dagoela etorkizunik. Aurten 90 urte beteko ditu ingeniari austriarrak, baina oraindik egunero joaten da lantegira.

Garibai auzoan izan zuen lehen egoitza Stadler-ek, gaur egun Ezpeleta dagoen tokian, eta 1996an eraiki zuen pabilioi berria (4.400m²) Santxolopeztegin. Gero, 2006an, 6.000 m²-taraino handitu zuen lantegia.

AUTOMOZIORAKO JAUIA

Hasieratik pieza metalikoak ekoizten hasi zen Stadler sinterizazioaren teknika aplikatuz. Lehenengo urteetan armagintza, sarrailagintza eta nekazal tresneriarako piezak egiten zituzten, baina orain dela hamar urte benetako iraultza gertatu zen Stadler-en, automozioaren sektorean sartzeko apustua eginda. Makineria berritu, enpresako

» Volkswagen eta Mercedes dira Stadler-en bezero nagusiak

prozesu guztiak modernizatu eta automozioaren sektore zorrotzak eskatzen dituen kalitate ziurtagiri guztiak lortuta, autoen motorrendako piezak fabrikatzeari ekin zion: ur edo olio-ponpak, poleak...

Urte zailak igaro behar izan ditu. Inbertsio handia egin behar izan zuten eta, gainera, 2008ko krisiak ere bete-betean harrapatu zuen.

Batez ere, Volkswagen eta Daimler (Mercedes) taldeentzat egiten du lan eta 10 milioi inguru fakturatzen du urtean. Une honetan produkzio lerro berria prestatzen ari dira lantegian, ekoizpen ahalmena %20 handitzeko.

Oñatikoa da Stadler-ek daukan lantegi bakarra, eta 68 langilek ditu. 2016an *Joint Venture*-a egin zuen Estatu Batuetako enpresa batekin, eta iaiztik ordezkaritza komertziala du Mexikon.


ETORKIZUNERA BEGIRA

Zorionez, atzean utzi ditu urte zailak eta baikor begiratzen dio Stadler-ek etorkizunari. BMW markako autoentzako pieza baten industrializazio prozesua nahikoa aurreratua du, eta FIAT-endako proiektu berriak abian jartzeko aukera ere mahai gainean dago. IVECO eta SCANIA kamioientzako piezak egiten ere hasita daude.

Epe luzera begira, ibilgailu elektrikoentzako piezak fabrikatzea izango da helburua. ■



Stadler-eko langile talde bat Rudolf lehendakariarekin



SINTERIZAZIOA

Goiko irudiko eskemak erakusten du zer den sinterizazio prozesua. Metal-hautsa molde ezberdinetan sartu eta trinkotu egiten da prentsa batekin. Prozesu horretatik irten den piezaren propietate mekanikoak lortzeko sinterizatu egin behar da. Horretarako, piezak labera sartzen dira 1.150°-tara. Azkenik, piezak mekanizatu egiten dira (beharrezkoa den kasuetan bakarrik).

Teknologia oso garbia da. Lehengai guztia erabiltzen da eta ia ez da hondakinik sortzen.



Stadler-ek historian zehar produzitu dituen piezetako batzuk

ATE IREKIAK, EKAINAREN 30EAN

Enpresaren 50. urteurrena herritarrekin batera ospatu nahi du Stadler-eko lantaldeak. Horregatik, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekainaren 30ean egingo den ate irekietara. Instalazioak bertatik bertara ikusi eta sinterizazio prozesuaren nondik norakoak ezagutzeko aukera egongo da. **Eguerdiko 12etan** hasiko da ekitaldia. **Ganbara Abesbatzak** parte hartuko du eta **luntxa** egongo da bertaratzen diren guztientzat.



 **Mekalki**
S. Coop. **mekanizatuak**
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es





Azken ira-metak

Iraz egindako meta edo zuatzak nekazal giroko kulturaren parte izan dira duela ez urte asko arte, baina desagertuz doaz gure paisaiatik. Murgiko Eiziar Goikoan daude azkenak



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Orain dela urte gutxira arte ohikoa zen metak edo zuatzak ikustea baserri inguruetako zelaietan. Belar-metak, ganaduarentzako negu partean jana edukitzeko egiten ziren; ira edo garo-metak aldiz, aziendarentzat azpiak —eta ondoren simaurra— egiteko. Gaur egun, belar-meten ordeztzakinak plastikoz bildutako fardoak edo bolak ikusten ditugu landa guneeetan, eta ira-metak apenas egiten dira. Eiziar Goikoa baserrian ikus daitezke oraindik lau. Oñatin egin eta egingo diren azkenak ote?

Murgia auzoko Eiziar Goikoa baserrian daude argazkiko ira-metak. Oñatin gaur egun ikus daitezkeen bakarrak, guk dakigula, eta, agian, ikusiko ditugun azkenak, bertako seme Bixente Kortabarriak esan digunaren arabera. “Orain dela urte bi egin gittuan azkenak, eta samurra gehixago ez egittia. Illobaren batzuk-edo gogua hartzen ezpadaue... Bestela kitto. Zuatza egiteko hiru lagun bihar dira, gutxienez, eta guri fan xaku inddarra”.

Bixente mutikoa zela hasi ziren ira-zuatzak egiten etxean. “Gure aittak ez eukan ardi askorik, eta teillapeian sartzen geben iria, edo kanpuan pillia egindda. Baiña metarik ez. Gero, artaldia haunditu eta anaiok pittin bat gogortu giñanian ekin giñan zuatzak egitten”.

Hilabetearen izenak berak aditzera ematen duen moduan, irailean egiten dira ira-metak. “Bai, segiarekin ebagi eta igarketan danian batu eta pillara”.

Ez ei dauka aparteko zailtasunik zuatza edo meta egiteak. “Erdixan egurra zutik ifiñi —gaztaiña edo piñu alertzia bada hobe, gehixago irauten dauelako usteldu barik— eta iria botaten hasi. Erdiko egurraren inguruan ondo zapalduta jartia komeni da, eta aldame-netan bajutxuago, ura kanpora bota degixen. Ipurdixan egurra jarten xako, pittin bat altxau eta lurreko umedaderik ez hartzeko. Akaberran, goittik behera egur batzuk ifintten dira, haiziak ez degixen harrotu”.

Zuatz bakoitzean hiru edo lau traktorekada ira pilatzen zuten, eta urtean zazpi edo zortzi meta egiten, hiru anaien artean; bat traktoretik ira botatzen sardearekin, eta beste biak zuatz gainera igota, zapaldu eta behar bezala ipintzen.

ARDIENTZAKO AZPIAK

Zuatzean batutako ira ardientzako azpiak egiteko erabiltzen da. “Azpittarako daguenik onena da iria” dio Bixentek irmoki; “Batzuk zerrautsa ebalten daue, baiña sitsetarako txarra da; erretxiña zela dakon, kanpuari kalte egitten xau. Lastua be ezta ona; ezta txizarik batzen eta, gaiñera, ustauagaz (belar txarrez) beteten dau etxe inguru dana. Azpikak egiteko onena, iria; lan asko dakola, horixe!. Negua euritsua



Irarekin
prestatutako
azpiak
artegian

BIXENTE KORTABARRIA

Eiziar Goikoa

«Ardixendako azpikak egiteko dagueenik onena da iria»

badoia, bizpahiru aldiz aldatu bihar izaten dira azpikak. Aldiko meta bat inguru ira sartzen dogu artegixan. Negua siku badoia berriz, igual erdixa bihar da ifaurkiña”.

Bistan dago, beraz, funtzio inportantea bete izan dutela ira-metek nekazal giroan. Gaur egun, aldiz, iraganeko bizimodu baten lekuko isilak baino ez dira, artelan bihurtutako mendietako eskulturak. ■



«Urtian 7 edo 8 meta egitten gittuan hiru anaion artian»

**BISITA GIDATUAK****EKAINAK 14**

10:30 Gaztelaniaz
12:00 Euskaraz

EKAINAK 15

10:30 Gaztelaniaz
12:00 Euskaraz

Oharra:

Plaza mugatuak dira;
25 bisitaldiko.

Taldeak antolatu behar direnez, ezinbestekoa da izena ematea, telefonoz (943415060) edo emailaz ahpg-gpah@gipuzkoa.eus Herritar guztiak daude gonbidatuta

Artxiboa barrutik ezagutzeko ATE IREKIAK

» Artxiboen Nazioarteko Egunaren harira bisita gidatuak antolatu dituzte Oñatiko Artxibo Historiko Probintziala barrutik ezagutzeko. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



RAMON MARTIN ETA GARAZI GARAIO ARTXIBOZAINAK

"Artxibo historikoa herritar guztiei irekita dagoen zerbitzu publikoa izatea nahi dugu"

Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatzen da ekainaren 9an, eta horren harira ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan (GPAH). Ekainaren 14 eta 15ean izango dira ate irekiak eta gidatutako bi bisita egingo dira egun bakoitzean. Artxibo bat zer den ezagutu, bertako instalazioak ikusi eta bertan gordetzen diren dokumentuak ezagutzeko aukera bikaina, beraz, interesa duten herritar guztientzat.

ALDAKETAK ARTXIBOAN

Azken urte honetan aldaketa garrantzitsuak gertatu dira Oñatiko probintziako artxibo historikoan. Iazko ekainean Gipuzkoako Foru Aldundia- ren esku geratu zen bere kudeaketaren ardura, eta, bestalde, iazko urte amaieran

Sancti Spiritus unibertsitatean zegoen Protokoloen Artxiboko dokumentazio guztia ere Ibarra zelaiko eraikinera lekualdatu zen.

Beraz, esan daiteke etapa berri bat hasi dela GPAH-arentzat, eta etapa berri honetako helburu nagusia da bertan gordetzen den ondare dokumentalaren zabalkundea egitea. "Funts dokumentalen inbentarioa egin, deskribatu eta, poliki poliki, Gipuzkoako artxiboen atariaren bidez (<http://artxiboataria.gipuzkoa.eus>) herritar guztien eskura jartzea da gure lehentasunetako bat" azaldu digu Garazi Garaio artxiboazainak. "Une honetan, adibidez, Estatuko Ogasunaren funtsarekin ari gara lanean, eta informazio oso interesgarria azaltzen da desamortizazio kasuak edo baserri eta lursailen mugak aztertzeke".

Garaio argi utzi nahi du, ez dela historian aditua izan behar artxiboko dokumentuak kontsultatzeko. "Jende asko etortzen da, historian aditua izan barik, bere ahaideen edo baserriaren historia aztertu nahi duena, edo memoria historikoaren gaia lantzen ari dena. Beraz, animatu egin nahi ditut herritarrek ekainaren 14 eta 15eko bisita gidatuetan parte hartzera". ■




Peruko Amazoniako haurren aldeko elkartasun ekimena

Peruko Yarinacocha herrian dabil Nekane Santos oñatiarra, Alianza Arkana GKEarekin bolondres lanetan. Amazonian gertatzen ari diren ingurumen eta gizarte krisien inguruan gizartea kontzientziatu eta bertako komunitateen arteko sareak sortu eta indartzeko lanean diharduen erakundea da Alianza Arkana. Hainbat proiektu ditu martxan, baina, kasu konkretu honetan baratze komunitario bat jarri nahi dute Shipbo-Karibo komunitatean, bertako haurren elikadura osasuntsua bermatzeko eta, bide batez, ingurumenarekin lotutako gaiak jorratzeko. Proiektua martxan jartzeko *crowdfunding* kanpaina jarri dute abian <https://www.globalgiving.org/microprojects/indigenous-kids-grow-their-own-school-garden/> atarian. Bertan aurkituko duzue proiektuaren inguruko informazio guztia.

ELKARTASUN PINTXO POTEA

Ekainak 21, plazan, 19:00

Hotz-Oñati taldeak antolatuta, pintxo pote solidarioa egingo da ekainaren 21ean Foruen plazan, 19:00etan. Bertan batzen den dirua **Itsas Salbamendu Humanitarioa** elkartera bideratuko da, errefuxiatuen alde itsasoan egiten duten lanarekin jarraitzeko.



ELKARTASUN AFARIA

Ekainaren 28an, ostirala, parrokiako Misio Taldeak antolatutako elkartasun afaria egingo da Bidaurretan (20:00), Guinea Conakry-ko proiektuaren alde. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

400€-ko lau sari TXANDAREN eskutik

TXANDA dendarien elkarteak 1.600€ zozkatuko ditu ekaina eta uztaila bitartean. Elkarte dendetan erosten duten bezeroen artean 400€-ko lau erosketa-bono zozkatuko ditu. Hilean bi.





ONATI EUSKALTEGIA

UDA HONETAN ...



ONATI
dabilen herria

... ZEUR ECA NATU!

UDAKO EGA IKASTAROA - 2019

Bidebarrieta, 18
Tel: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

Uztailaren 1etik 30era
Goizeko 8:30etik 13:00era
80 ordu
Matrikula epea: Ekainaren 3tik 21era
Prezioa: 117,30€

Aldikako trafikoko mozketak Bakardadeko Ama kalea eta Santa Marina artean

Gipuzkoako Urak enpresak edateko uraren hoditeria berritu behar du Mendiko Kale, Patrua Kale eta Santa Marina artean, eta horrek eragina izango du inguruko trafikoa.

Aste honetan bertan hasi dira lanak Mendiko kale, Portu eta Bakardadeko Ama kaleko bidegurutzean. Ondorioz, Mendiko Kalerako pasabidea guztiz itxita geratuko da hainbat egunetan. Bakardadeko Ama kalera eta Santa Marina alderako trafikoa ez da moztuko, baina tarteka trafiko etenak egin beharko direla jakinarazi du udaltzaingoak.

Baina hiru aste barru (ekainaren 24rako aurreikusten da) lanak Santa Marina aldera iritsiko dira, eta orduan bai, trafikoa moztuta geratuko da Mendiko Kaleko bidegurutzea eta Santa Marina artean, ondoko planoak erakusten duen moduan. Lanek dirauten bitartean Errekaldetik eta Portu kaletik doazen ibilgailuak Bakardadeko Ama kalera bideratuko dira, eta Bidaurretako errotondatik datozenak Kurtzebide kaletik Errekaldera.



Posta bulegoko autobus geltokia lekualdatu egingo dute bi astez



Posta bulegoko autobus geltokiko zorua konpontzeko lanak egingo dituzte **ekainaren 11tik 27ra** eta, ondorioz, geltokia metro batzuk aurrerago eramango dute. Goiko irudiak erakusten duen moduan, geltokia Cegasa aurrealdeko birlbilgune parean egongo da hama-bost egunez.

**Cegasa aurreko
errontonda
parean egongo
da geltokia
probisionalki
ekainaren 11tik
27ra**

Kiroldegiko mantenu teknikari lanpostua betetzeko deialdia egin du udalak

Lehiaketa-oposizio sistema ireki bidez beteko du udalak kiroldegiko mantenu teknikari lanpostua. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Lanbide Heziketako erdi mailako titulua eskatuko da, arlo hauetako- ren batean: elektrizitatea eta elektronika; energia eta ura; eraikuntza eta obra zibila; fabrikazio mekanikoa; instalatze eta mantentze lanak. Iragarria Estatuko Boletinean argitaratu ondoren irekiko da izen-emate epea. Udalaren webgunean kontsulta daiteke deialdia arautuko duen baldintza zerrenda osoa (www.oñati.eus/tramiteak/lan-eskaintza publikoa/kiroldegiko). Etorrizuneko balizko beharrak betetzeko lan-poltsa osatzeko ere baliatuko da hautaketa prozesua.

Turismo arloko ostatu eta enpresentzako dirulaguntza deialdia egin du Jauralaritzak

Turismo negozio berriak sortzera edota jardunean diren enpresen lehiakortasuna hobetzera zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Eusko Jauralaritzak. Negozio berriak sortzera 200.000 € bideratuko dira, eta lehiakortasuna hobetzera 425.000 €. Interesatuak <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/emet-2019> atarian bete behar dituzte eskabideak ekainaren 17a baino lehen.

KOBAZULOEN NAZIOARTEKO EGUNA. Ekainaren 6an Lurpeko Munduaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hori dela eta, zapatuan (ekainak 9) ESPELEO-ABENTURA irteera egingo da Arrikutzen (15:30) 18 urtetik gorakoentzat. Erreserbak egiteko: 943082000.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Legazpiko olagizonen omenez



Argazkia: Roberto Altuna

Legazpira begira jarri gara oraingoan, Mirandaolako parkean ipini duten eskultura ikusgarriak arreta erakarrita. Kareharri zuriz egindako artelana da, 3,30 metro luze eta 3,5 tonako pisua duena, eta olagizon bat irudikatzen du, burdinazko tenaza eta guzti. Legazpiko seme Jose Luis Arzuaga (Legazpi, 1940) da eskultura eder honen egilea, eta dohaintzan eman dio Legazpiko herriari. Arotza da lanbidez Arzuaga, baina beti eduki izan du artearekiko eta, bereziki, harria lantzeko zaletasuna, eta aspaldiko ametsa bete du Legazpiko herrian horrenbesteko garrantzia izan duten olagizonei eskultura bikain hau eskainita. Ia lau urteko lanaren emaitza da, eta Legazpiko Mirandaola parkean kokatu dute, udalarekin adostuta.



JUBILATUEN ASTEA ekainaren 9tik 14ra

Pake Lekuk antolatuta, herriko Jubilatuen Astea ospatuko da. Ekitaldi egitarau osoa prestatu dute.

Ekainak 9 JUBILATUEN EGUNA
Meza (12:00) parrokan, eta ondoren omenaldia, bazkaria eta dantzaldia kirodegian.

Ekainak 10
Eutanasiari buruzko hitzaldia Juan Jose Sagarzazu medikua-
ren eskutik. Santa Anan (17:30)

Ekainak 11
Aloña abesbatza eta musika eskolako taldeen kontzertua Santa Anan (18:00)

Ekainak 12
Ibilaldia, hamarretakoa eta dantzaldia. Pake Lekun (10:00).

Ekainak 13
Bingo berezia opariekin (17:00)

Ekainak 14
Txokolatada eta dantzaldia, Pake Lekun (17:30)

Ekainak 19-21
Pake Lekuko eskulan taldekoek egindako lanaren erakusketa. Pake Lekun, 18:00-20:00.

**Goi Mailako
HEZIKETA ZIKLOAK**

2019-2020

>> Oñati gestio
heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Izen-ematea

Ekainaren 3tik 14ra

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
•Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa	•Automatizazioa eta Robotika Industrial •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa •Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Sozialdemokrazia-runtz

Ander Lizarralde eta Aimar Uribesalgo

Ipuin bat kontatu digute eta denok sinistu dugu. Eta beste istoriorik ez dela posible uste dugu. Kapitalismoak bazter guztiak bereganatu ditu. Eraldaketa grinak haizeak daramatza. Lana, produkzioa, benefizioak, kontsumoa, suntsipena. Ikerketa eta garapena, enpresagintza bultzatu beharra, berrikuntza teknozientifikoa, ondasun pilaketa, teknologia berrietako zaborra, kirol eta drogen adikzioa, nere kotxia, nere furgonetia, gure kooperatibak, bankuekin zorpetzeak dakarren sumisioa, oporrak, asteburua nekazal etxean, eta kontzientzia garbitzeko ONGari diru pittin bat.

Klase ertaina eta ongizate gizartea. Sistemaren karriletatik korroneak garamatza. Kuestionatzea ahaztuta lehengaien jatorria, kapitalismoaren alienazio dinamikak, zenbaiten aberastasun pilaketa, merkatu askeak dakarren konpetizioaren errubera eroa ... Gizarte eraldaketa asmoak lozorroan geratu direlarik. Sozialdemokrazia usainak hartu du Euskal Herria. Eta Oñati.

Sozialdemokraziaren hizkuntzak giza eskubideez, demokrazia ordezkagarriaz, ekologismoaz, feminismoaz, ekonomia sozialaz eta berau humanizatzeari, pertsona

erdigunean kokatzeaz eta multikulturalismoaz hitz egiten digun bitartean, bere diskurtsoaren atzean gauditu ezin dituen kontraesanak ditu. Besteak beste: 1) Luzera begira mantendu ezin den hazkunde ekonomikoan oinarritzen da, 2) munduko periferietako herrialdeen ekosistema eta lan indarraren bizkar eraiki eta mantentzen da, 3) aberastasunaren banaketa sozialaz arduratzen da enpresari aberatsen kapital pilaketa (eta ondorioz boterea) erradikalki mugatzea lortu gabe, eta 4) instituzio sozialdemokratek (demokrazia liberalak, finean), herri boterea eta herri borrokak neutralizatzeko joera erakusten dute.

Sozialdemokrazia ez da bidea.

Iruña-Veleia, epaiketa noizko?

Tomas Elorza Ugarte, Jexux M. Eizagirre Portillo, Juanjo Uria Zubiarain eta Beñi Agirre Oizartzabal

Urtebete baino gehiago da Iruña-Veleia aferako akusazio-idatziak ezagutu zirela: Arabako Aldundiak zazpi urte eta erdiko kartzela-zigorra eta 300.000 euroko isuna eskatzen ditu Eliseo Gilentzat, Oskar Escribanorentzat 5 urte eta antzeko isuna, Ruben Cerdanentzat bi urte eta erdi. Fiskaliak ere antzeko

zigorrak eskatzen ditu. Baina epaiketak ez du izendatu oraindik epaiketa-eguna, hamar urte baino gehiago luzatu den auzi honentzat.

Normalean, zigor-eskaerak ezagutu eta pare bat hilabetera-edo hasi ohi da epaiketa. Ba kasu honetan, ez dakigu zergatik, urtebete igaro da eta oraindik akusatuak ez dakite noiz epaituko dituzten. Akaso, epaiketaren mamian dago arrazoiak: zer epaituko dute frogaz zientifiko formalik egin ez bada? Eta nor epaituko dute, Ertzantzak faltsutzaileak aurkitu ez badu?

Bitartean, epai bidean dauden eta ingurukoak sufrimendua luzatzen ari da eta pertsona askoren jakinmina eta euskal kulturarako garrantzitsuak izan daitezkeen gaiak zapuzten.

Ez dago eskubiderik! Hau ez da justizia!

Mila esker

Alix Barbero eta Julen Agirre (Errekaldeko Jai Batzordea)

Gutun honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu 2003tik hona Errekaldeko jaiak aurrera ateratzen lagundu diguten guztiei; bereziki Paula eta Xantiri, urte guzti hauetan erakutsitako eskuzabaltasunagatik. Bide batez, auzotar guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu jaiak suposatutako lezaketan eragozpenen harira erakusten duten jarrera ulerkorragatik.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Ilunabarra Orkatzategin

 Munduaren beste puntara joateko ohitura izan ohi dugu sarritan paraje ikusgarrien bila. Oraingo honetan baina, herritik oso gertu daukagun txoko batetara hurbildu nahi izan dugu. Oñatiko kaleetatik abiatu eta pedalei eraginez, Orkatzategi gainera heldu gara. Gailurrera iritsi osteko sentsazioa deskribaezina da. Bikaina!



ADRIAN CHOCHAN

Datorren urterako ondo egindakoak hobetu eta gaizki egindakoak zuzentzen saiatuko gara.

Mila esker guztioi eta gora Errekalde!!

Esker onez

Izaro, Xabier, Anik, Iñaki, Maite, Iker, Susana, Bixente, Alaitz, Axier eta zerrendakide guztiak

Zugana, zuengana zuzentzen gara bihotz bihotzez eskerrak emateko premia, gogoia eta bulkada sentitzen baitugu geure barruetan. Ez ditugu izenak aipatuko izanek betetzen baitute zuetariko bakoitzaren bertutea. Pertsona eskuzabalak, langile finak, ezkutuko lan txikietan trebeak, ekarpen eraikitzaileak egiten arituak, Harritu prozesuan inplikatuak, bileretara irribarreak etorri zaretenak, ekimen ezberdinetan lanerako gertu agertu zaretenak, asto lanetan, sukaldeko lanetan, jostun lanetan eta ia ikusezinak diren lanetan aritu izan zaretenak, prozesuak prozesu eta ikaskuntza eran bizitzen dituzuenak,

herrigintza-prozesuak bizigarri egiten dituzuenak, ingurukoa samurtzen, zaintzen eta goxatzen dakizuenak.

Zuen ahalmenen arabera zuen onena eman duzuen norbanako zein talde guzti horiengana zuzentzen gara. Beharbada hitzez edo keinu txiki baten bidez gure esker ona agertu izan dizuegu. Baina baliteke keinu txiki hori ia aprezia ezina izatea. Udazkenean zuk jaso aurretik haizeak eraman izana. Edo neguko gau hotz hartan, bilera ostean, izoztuta gelditu izana.

Beraz, uda eta aro politiko berria ate joka ditugun honetan, berririo zugana, zuengana zuzentzen gara. Begiak itxi eta irudika gaitzazu zure alboan. Begiak zabaldu eta ikusiko duzu bertan jarraitzen dugula. Eskutik elkarrekin segi nahi dugula. Gu zuri begietara begira gaukazula. Zintzo, garden eta aldi berean goxo begira gaukazula, eta esan nahiko genizukeen hori esaten ari garela. Eskerrik asko zure modura gure alboan egon eta emandako laguntzagatik.

Batzuetan zaila den

arren, eta oraindik ikasten ari garen arren, guk zu ere zaindu nahi zaitugu, zuk gu zaintzen gaituzun bezala. Benetan sinesten dugu pertsonak erdigunean jarri behar direla. Garela. Gu ez

ginateke Gu zu barik. Beraz, mila esker zuri. Mila esker zuei. Asteleheneko ajeak guri beste indar eta ilusio ekarri izana espero dugu. Mila esker eta zorionak denoi.

OHAR ETA DEIALDIK

Telefono zenbaki berriak: Udaletxea 010 / Udaltzaingoa 092

Gogoratu, martxoaz geroztik telefono zenbaki berriak daudela udaletxera eta udaltzaingora zuzenean deitzeko. Zenbaki hauek Oñatitik bertatik egiten diren deietarako bakarrik dira eta dohanik dira.

Errekaldeko jaietako zenbaki sarituak

Hauek dira Errekaldeko jaietako zozketan sarituak aterata diren zenbakiak:

- 1.- **1362** (ordezkoa 2856)
- 2.- **3211** (ordezkoa 0234)

TRAUTI Eguna, ekainaren 8an

‘Trauti-Hesirik Gabe’ elkarteak antolatuta VII. Trauti Eguna ospatuko da ekainaren 8an. Goizean zehar (11:00-14:00) ekitaldi ezberdinak egongo dira Foruen plazan. Besteak beste, elbarrientzat egokitutako autoak ikusteko aukera egongo da, eta ezinduentzat erreserbatutako aparkalekuak errespetatzearen garrantzia azpimarratuko dute beste behin.

Udako Kirol Kanpainan tokia dago

Zubikoa kiroldegitik jakinarazi dutenez, ekainaren 24an hasiko den Udako Kirol Kanpainan plazak daude talde ezberdinetan eta bi txandetan (ekainak 24 - uztailak 5 / uztailak 8 - 19). Galdetu kiroldegian eta animatu kirola eginez uda gozatzen.



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

Lisboara goazela...

Oñatiko Udaletik egiten zaigun enkargua 12 eta 17 urte bitartean dauden neska mutil oñatiarren denbora librearen osasuntsu batean antolatzea da. Aisialdi espazio bat eskeintzea eta hezitzailea izan dadila.

Gaztelekura, hezitzaileongana, euren nahi dutelako datoz gaztetxoak, ez da izenik ematen beraz gurean eta ezin da inolr derrigortu etortzera, borondatezko harreman bat da gaztetxoekin gurekin daukatena.

12-14 urtekoak etortzea errazagoa da, inertziaz datoz, asko eta asko kubotik pasatutakoak dira gainera. Haurtzarotik ateratzen ari diren garai horretan, lagunekin egotera datoz Gaztelekura, beraientzako eskusiban den lokal batera.

Urteak aurrera joan ahala, 15 urte betetzean, beste era batean harremandu beharra izaten dugu nerabeak guregandik gertu izan nahi baditugu. Eurentzat Gaztelekua xarma galtzen hasten da, beraien esanetan "txikiak egoten direlako bertan", eta gazte-lokalak bihurtzen dira kasu askotan nerabe koadrilen helburu.

Egoera honetan, gure galdera gaztetxo hauei hurrengoak izaten da: **Aizu gazte! zer egin dezakegu elkarrekin?** Zein da gure helburua galdera horrekin? Ea gazteengandik sortutako eskaera edo nahi batengandik guk prozesu hezitzaile bat garatzeko aukera izaten dugun.

Aurreko urtean 15 nerabek (16 urte) Menorkara joateko aukera aipatu ziguten (eta joan ginen). Aurten beste 10ek Lisboa aipatu ziguten. Eta horretan gabilta, Lisboarako ibilbidean, Lisboarako prozesuan.... proiektua deitzen diogu guk lan egiteko era honi: talde prozesua edo talde proiektua. Zeren eta prozesu hauek, esan bezala, helburu hezitzaileekin lana egiteko aukera emango digute.

Ez da garrantzitsuena guretzako destinoa edo eskaera *per se*, eta bai berriz euren garatuko dugun ibilbidea: hasierako ilusioa, neska-mutilen erantzun eta jarrera ezberdinak, taldekideak elkarren artean eta gurekin dituzten gatazkak eta ebazteko dituzten gaitasunak edo gaitasun ezak, bilera luzeak, gaztetxoak izan ditzaketen gaitasun ezberdinak deskubritzen eta garatzen joan, proiektua aurrera atera dadin egiten dituzten esfortzuak, hartu behar dituzten konpromisoak, ... hainbestetan ikusten dugun aisialdi merkantilistaren aurrean **inplikazioaren eta arduraren pedagogiagatik** egiten dugu apustu, hori delako gazteek nahi eta behar dutena euren autonomia maila garatzeko.

Aipatutako guztiez gain, ze bestelako lan edota ardurak hartu behar dituzten? Adibidez, besteak beste; gure kontzertu eta ekintzetako kartel pegadak, txikiagoentzako ekintzak antolaketaren ardura, txokolatadak, bigarren eskuko azokak, zozketak, haurrentzako eskulanak, ...egin dituzte. Eta horrela, pittinka pittinka, talde proiektua garatzen dagoen Lisboako taldea bidaiaren helburua gauzatzeko dirua joaten da lortzen. Ekintza guzti hauen antolaketan, gazteen artean eta gurekin gertatutakoekin esku-hartzerako aukera eman digute. Gure helburu nagusia ez baita dena ondo joatea, ez da errealista gainera, baizik eta gertatzen direnetatik ikasgaiak ateratzea. Beraz, aurten ere, hau guztia egin eta gero, bidaia egitekoak gera nerabeekin datorren ekainaren 24tik 28ra.

Beraz, lana egiten dugu Lisboako **talde prozesu** hau ikasgai bihurtuko denaren esperantzarekin, eta bertan ikasitakoa etorkizunean izango dituzten bizipenetara (lagunak, familia, lana, ...) luzatuko denaren nahiarekin. Hori baita lan hezitzaile honen funtsa.

Topalekuko hezitzaileak

AGENDA: 19.06.14 Ludotekako azken festa, Herriko plazan (17:00). I 19.06.15 Udaleku irekietako begiraleen formakuntza, Gaztelekuan (9:00-13:00). I 19.06.15 Galapote, Irizan Antzerki Gunearen eskutik Gaztelekuan (20:00). I 19.06.19 V. Futbol txapelketa Larrañako futbol zelaian. I 19.06.24tik 19.06.28ra DBH4ko prozesuko bidaia Lisboa. I 19.06.26 Kubotik Landara irteera. Izena aurrez eman behar da.

URGENTEA vs GARRANTZITSUA



Sarritan entzuten da gazteriak ez duela parte hartzen, edo ezer gutxi, gizarte arazo nagusien aurrean antolatzen diren ekimen kolektiboetan. Jubilatuen manifestazioetan ez dela gazterik ikusten naiz eta pentsioen arazoa ez izan bakarrik, edo neurri haundi baten, gaur jubilatuta daudenei dagozkien zerbait. "Hala edo nola guk aurre egin diezaiokegu egoera honi, baina nola konponduko dira gure seme-alabak eta bilobak?". Edo "zer planetan bizi beharko dira horrelako gizarte ereduarekin jarraitzen badugu?". Orduan, nola ez dute parte hartzen?.

Hau azaltzeko hainbat arrazoi jarri daitezke, gizarte baloreen



Luis Guridi

eta lehentasunen aldaketa, indibidualismoaren gailentzea, etab. Baita ere, segur aski honek badu zerikusirik ekimen kolektiboen metodoen sinesgarritasun eskasarekin, edo gauzak egiteko eraren gaurkotasun ezarekin. Pankartaren atzean oihuka ibiltzea manifestaldietan ez da beraienez, agian, erakargarria.

Baina uste dut beste zerbait ere kontuan hartzekoa dela. Gure eguneroko bizitzan, denok, maiz, garrantzitsuaren aurrean urgentea lehenesten dugu. Gazteriaren kasuan, agian, klima aldaketaren ondorioz etorkizunean aurkituko duten planetaren egoera izan daiteke benetan garrantzitsua. Edota, aldaketa teknologikoak eta demografikoak direla medio, enpleguan edo gizarte babes sisteman etorkizunean sortuko diren triskantzak, besteak beste. Baina pentsioekin gertatuko den

bezala, hamarkada batzuk pasatuko dira ingurumenari lotutako arazo larriak bete betean heldu ordutako, ez dira biharko edo datorren asteko zerbait. Gazteentzat, biharkoa, urgentea, zera da, ikastea, enplegu duin bat lortzea, familiarik emantzipatzea, edota familia propioaren proiektu bat aurrera eramanez ahal izatea. Eta jakina, dibertitzea eta ondo pasatzea.

Hau ez da erraz konpontzen, baina agian, nahiko azkar, garrantzitsuak diren gauzak urgentek bihurtzen ariko dira -biolentzia matxista eta diskriminazioarekin egunero bizi beharra, adibidez- eta, orduan, parte-hartzea eta erantzuna zabala izan daiteke. Ikusi besterik ez dago azken bi urtetan martxoaren 8an gertatutakoa. ¿Horrelako zerbait gertatuko ote da planetaren iraunkortasunak eskatzen duen gizarte aldaketekin?.

ILARGI BETE, NON ZAUDE?



El largiak beti izan du gizakiarengan xarma berezi bat. Gizadiaren sorreratik dakusagu ilargia zeruan eskegita baina, aski gutxitan izan dugu (sinbolikoki) gure gain izateko aukera. Maizago bihurtu dugu ilargia ametsen paradisu, nostalgia poetikoaren irudi edo, ezinezkoa den ororen utopia, zeharka argi eginaz munduari gauaren maindire beltzean.

Mendeetan barrena astronomo eta ikerlari asko saiatu dira ilargia ikusiz, ikasiz eta sentituz, hura ikertzen. Zibilizazio ain-



Amaia Aranzeta

tzindarietatik gaur eguneraino, gizakiak beti begiratu dio ilargiari jakinminaz lurra aurkitu ezin daitezkeen erantzunak, zeru zapaien aurkituko diren esperoan. Euskal mitologian ere izan du ilargiak aipamen sarri. Adibidez, euskal hizkuntzak ilargia izendatzeko hitz ugari ditu: iretargi, argizar, ilazki... Ilargiaren inguruko kondairez beteak dira euskal mitologiako liburuak, ahozko ondareak, gure arbasoen istorioak kontutan hartuz, gugana ekarri dituen narrazio xumeak direla.

Kondaira edo narrazio guzti hauek osatzen dute gaur egun garena. Ilargirik ez balitz existitu edo, gure arbasoek ez bazituzten istorio horiek ahoz helarazi, egungo euskal kultura eta mi-

tologia ezberdinak litzatezke; eta, agian, ez genituzken lamien inguruko daturik edukiko (fikzioa izan arren) ez eta, tartalo, basajaun edo antzekorik. Honek guztiak, euskal nortasuna eta euskal sena garatzen lagundu digu; ahozko ondareak idatzizkoak haina garrantzia izan baitu gure artean, batez ere, historikoki ahozko kultura eta transmisioari hain lotuta egon den euskal herrian.

Beraz, ilargi edo iretargi, ea gure ondorengoak ere zure iturritik emari diren istorioez asetzen diren eta inoiz galdetzerik ez dugun ene ilargia non ezkutatuzaren. Gorde dezagun gurea dena, mitoa ala egia, bihotzeko errailetatik aterea bezalaxe.

**COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus
🌐 www.coinbroker.eus

*Amaia Igartua*
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Igoailuen eta O kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK

**GEREZIAK**

Keiza sasoian sartuta
gaude bete-betea eta
Milagroko (Nafarroa)
ale ederrak ikusi ditugu

3,5€ KILOA**PATATA BERRIA**

Patata berri gorria
ere iritsi da azokara.
Egosita edo entsaladan
jateko bikaina

2€ 2,5 kiloko poltsa*Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa***MAIALEN MADINA**
GESALTA

2011n Gomiztegiko Artzain Eskolan formazioa osatu ostean erabaki zuen Maialenek artzaintza izango zuela ogibide, eta orduan hasi zen plazako azokara joaten. Maialenek berak egindako ardi gazta saltzen du, ketua eta ketu gabea, 18€tan kiloa; gazta erdia edo laurdena erosteko aukera ere eskaintzen du. Urtean 1.700 kilo inguru egiten ditu eta oso ondo saltzen omen du azokan. "Iaz, adibidez, den-denak saldu genituen. Bezero finkoak ditugu eta gustura etortzen gara azokara". Arantzazun ere saltzen dute igande eta jai egunetan.

Ardi gaztaz gain, ardi esnea ere saltzen du Maialenek, urtarrilean hasi eta ekaina erdi ingurura arte; hori bai, goiz samar joan behar da, edo aurretik enkargatu, estimu handia baitu Gesaltzako ardi esneak. "Jendea oso gustora dago; zapore berezia duela esaten dute". Maialenek eskerrak eman nahi dizkie bezero fuztiei.



Hiru belaunaldi elkarrekin; Maialen, ama Esther, eta Ekhi seme txikia

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak

**653 70 45 47**

Oñati



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Guardia Zibila Oñatiko kuarteletik joateko **sinadura bilketa** abian da

- ▶ Ahalik eta herritar gehien atxikimenduak batu eta instituzioetara eramango dute aldarria
- ▶ **Ekainaren 15ean** egingo da 'JARE KUARTELA' herri ekimenaren aldarrikapen ekitaldi nagusia Foruen plazan

Hainbat herritarrek abian jarri duten 'JARE KUARTELA' ekimenak antolatuta, sinadura bilketa egiten ari da herri mailan kuartela hustu eta Guardia Zibila herritik joan dadin eskatzeko. Aurreko urteetan ospatu izan diren FAN HEMENDIK egunek babes zabala izan dute Oñatin, eta eskema horretatik pausu bat haratago joateko unea iritsi dela uste dute antolatzaileek.

Gai honek agenda politikoan bere tokia behar duela uste du 'Jare Kuartela' ekimenak eta helburu horrekin jarri dute martxan sinadura bilketa. Ahalik eta herritar gehien atxikimendua lortu nahi dute, aldarria formalki instituzioetara eramateko. Udaletxeak eta bestelako instituzioek behingoz gaiari adarretatik heltzeko unea dela uste dute, desmilitarizazio prozesua martxan jartzeko eta indar okupatzaileen presentziarekin bukatzeko, Oñatin eta gainontzeko herrietan.

'Jare Kuartela' ekimenaren ustez Guardia Zibilak ez dauka bere presentzia justifikatzen duen ardura edo kompetentziarik, eta arrazoi historikoek ere ez dute tokirik gaur egun. "Guardia Zibila ez da herritarren onurarako ekarritako instituzio bat eta, horregatik, sinadura bilketa honen bidez aldarrikatu nahi dugu herriak ez duela Guardia Zibila bertan ikusi nahi, eta kuartela herritarren esku geratzea nahi duela".



Ekainaren 15era arte luzatuko da sinadura bilketa. 'Jare Kuartela' ekimenekoak heriko gune ezberdinetan egongo dira firmak batzen

ARGAZKI ERRALDOIA HERRIKO PLAZAN

EKAINAK 15, LARUNBATA, 13:30

Ekainaren 15a 'Jare Kuartela' aldarria kalera ateratzeko eguna izano da. Eguerdiko 12etan herriko ekoizleen ardo eta gazta dastaketa egingo da Foruen plazan, eta 13:30etan argazki erraldoia aterako da bertan, ekimenarekin bat egiten duten herritar guztiekin. Jarraian herri sukaldea egongo da; okela tomatearekin, txanpinoiak edota albondigak jateko aukera egongo da nahi duen ororentzat. Eguna borobiltzeko, jolasak (16:00), kale-animazioa (19:00) eta festa Gaztetxean (21:00) Gorpuzking eta Arrano pertxa taldeen eskutik.

**JARE
KUARTELA**
HERRI EKIMENA



'JARE KUARTELA' BIDEOAK

'Jare Kuartela' ekimenak animatu egin nahi ditu herritarrek ekimenari babesa ematera, Guardia Zibila Oñatiko kuarteletik joatea eta eraikina herritarren esku gera dadin eskatzera. Horretarako, besteak beste, bideo batzuk ere grabatu dituzte. @jarekuartela_herri helbidean ikus daitezke.






Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Oñatiko III.**RAID ABENTURA**

Ekainaren 15-16an jokatu da
eta **Ipar Ligako** Abendura Raiden
txapelketarako puntuagarria da

Orientazioa oinarritzat hartuz, kirol ezberdinak
(mendi bizikleta, trekking, eskalada, piragua, rappel...) uztartzen dituen kirol probak dira raidak.



OROE elkarteko kideetako batzuk

laz eratu zen OROE (Oñatiko Raid eta Orientazio Elkarte) taldeak antolatuta, Oñatiko III. Raid Abentura proba jokatu da ekainaren 15 eta 16an.

OROE taldeko kideak iaz hasi ziren Abentura Raiden Ipar Ligan lehiatzen, eta pentsatu zuten polita izango zela proba puntuagarrietako bat Oñatin antolatzea, gero eta zaletu gehiago dituen kirol modalitate honi bultzadaxoa emateko asmoz. Orain dela bost urte antolatu zen azkenengo abentura raid-a Oñatin, Aitor Otamendiren ekimenez.

BI EGUNEKO PROBA

Bi eguneko proba izango da Oñatikoa. Larunbatean (15:00) emango zaio hasiera (ordura arte antolakuntzak ez du jakitera emango non dagoen irteera puntua) eta 8 orduko tarte izango dute parte-hartzaileek (gaueko 11ak arte), mapa lagun dutela, antolakuntzak prestatu dituen proba ezberdinak egin eta ibilbidean zehar egongo diren kontrol puntuetatik pasatzeko.

Gaua neutralizatua izango da, elkarrekin pasako dute lehiakideek (jakitera eman ez den toki batean), eta igande goizean beste 5 orduko lana izango dute (08:00-13:00), beste hainbat proba egiteko. Proba bakoitzak puntuazio ezberdina du, zailtasunaren arabera, eta, beraz, emandako denbora tartearen barruan puntu gehien eskuratzen duenak irabaziko du raida.

Antolatzaileek esan digutenez, ia ezinezkoa da ibilbidean zehar dauden proba guztiak egitea denbora tarte horretan; beraz, estrategiak garrantzi handia izango du eta lehiakideek erabaki beharko dute, mapa ondo aztertuta, nora joan eta zein proba burutu, denbora kontuan hartuz.

AZKEN PROBA HERRIKO PLAZAN

Proba gehienak Oñatiko natur inguruneetan izango dira eta, beraz, zaila da lehiaketa bertatik bertara ikustea. Baina kirol modalitate hau jendearengana hurbiltzeko asmoz, igandeko azken proba (hiri-orientazioa) herriko plaza inguruetan egingo da, eguerdiko 12ak aldera.

Bestalde, OROE taldearen facebook-ean aukera egongo da lehiakideen jarraipena egiteko eta une oro non dauden jakiteko.

Bikoteka jokatu da Oñatiko raida, eta hiru sailkapen egingo dira: bikote mistoak, emakumezkoak eta gizonezkoak. Bi oñatiarrez osatutako bikote onenek ere sari berezia jasoko dute. Danera, 50 bikotek parte hartzea espero dute antolatzaileek. Izen-ematea zabalik dago oraindik, <https://onatiraid.wixsite.com/onati-raid> helbidean. Proba egin nahi dutenak jar daitezela harremanetan OROE taldekoekin; hauek emango dizkiete probaren inguruko azalpen guztiak.

MRFoto.es



Udanako Igoera, ekainaren 27an

MOTORRA Udana Motor Taldeak antolatuta, ekainaren 27an jokatu da Udanako auto igoera. Goizeko 9:00etan hasita, autoen egiaztapen teknikoa egingo da Foruen plazan, eta 12:30ak bitartean bertan egongo dira ikusgai lasterketan parte hartuko duten ibilgailuak. Eguerdiko 12:30etan karabanan abiatuko dira Udunaruntz, eta 14:00etan hasiko da igoera.



MENDI IRTEERA / Ekainak 16

IMOTZ HARANA

MENDIA Aloña Mendik ekainerako antolatu duen mendi ibilaldia Ultzamako sarreran dagoen Imotz haranean barrena izango da. Etxalekun abiatuta, Trinidad (1094m.) tontorrera igo eta bista paregabeaz gozatzeko aukera egongo da: Imotz, Ultzama, Sakana... Tontorrean dagoen ermitan erromeria ospatzen da urtero Trinitate egunean. Irurtzunen amaituko da ibilaldia (14 km. eta 850m.+). Ez du batere zailtasunik. Irteera, goizeko 7etan postetxe parean. Izena emateko azken eguna: ekainak 13, Aloña tabernan, edo alonamendi.mendi@gamil.com. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da.

PLATER TIROA Ekainaren 22an Korpuseko Plater-Tiroketa txapelketa jokatu da Txopekuan (10:30-17:30), foso olinpiko modalitatean, Pago Uso elkarteak antolatuta.

OÑATIKO HERRI LASTERKETA Ekainaren 22an Korpuz bezperako XVI. Herri Lasterketa jokatu da. Euskadiko puntako korrikalariak izango dira bertan; tartean Elena Loyo eta Iraitz Arrospide iazko txapeldunak. Emakumezkoen lasterketa 18:00etan hasiko da eta gizonezkoena 19:00etan. Eguerdian, (12:00) haurrentzako lasterketak egongo dira, Antxintxiketan taldeak antolatuta.

PILOTAKO FINALAK Deba Arroko LXXXII. Pilota Txapelketako finalak (kadete, gazte eta nagusien mailetan) Zubikoa kiroldegian 18:30) jokatu dira ekainaren 22an.

ESPAZIO HEZIKIDEAK PROIEKTUA ELKAR HEZIN

“Nondik” enpresarekin batera elkarlanean aritu gara ikastetxeko espazioen berrantolakuntza planifikatzeko asmoz. Espazio hezikideak, eskolako proiektuekin bat egiten duten espazio irekiak dira eta elkarbizitza eta espermentazioan oinarritzen dira.

Prozesu partehartzaile baten bitartez ikasle, irakasle eta gurasoen arteko elkarlana sustatu da eta espazioen antolakuntzaren inguruko lehen ideiak jaso. Ondoren, “Nondik”ekoekin batera, ideia horiek bideragarriak diren erabaki eta lehen diseinu-plana argitaratu dugu.



“Nondik” enpresakoek, espazioaren berregituratzeari konponbideak eskaini eta proiektua bideratu dute. Hauen artean, Arantzazuko Ama kalean dagoen HH eta LH eraikineko espazioak berregituratzeko 5 proposamen jaso dira eta Santa Marinaran dagoen BHko eraikinerako beste proposamen orokor bat.

Proiektu hau oso garrantzitsua da Elkar Hezi osatzen dugun komunitate guztiarentzat, ikastetxe osoko espazioak berrantolatzeaz gain, Elkar Heziko nortasuna bermatzen ere lagunduko digu.



Kopa txapeldun!

Futbol saileko gizonetako 1. Erregional mailako eta emakumezkoen kadete mailako taldeek Gipuzkoako Kopa irabazi dute. Ekainaren 1ean jokatu ziren bi finalak. Mutilena Beasainen eta neskena, Zubietan. Iñigo



Zubiak zuzentzen duen taldeak nagusitasun handiz eramanez Amara Berriren aurkakoa (3-0). Nesken kasuan berriz, finala, dexente orekatuagoa izan zen. Zorionez baina, oñatiarrek 1-0 irabazi zuten Astigarragako Mundarro taldearen aurkakoa. Infantil nesken taldeak ere, Kopako finala jokatu zuen Leintz Arizmen-diren aurka baina kasu honetan 2-0 galdu zuten.

Aloña Mendiko txirrindulariak sasoi betean

TXIRRINDULARITZA Aloña Mendiko txirrindulariek emaitza bikainak lortu dituzte azken asteotan. **Ander Blazquezek** Amurrioko sari nagusia irabazi zuen junior mailan, eta Euskadiko selekzioa ordezkatuz 14. sailkatu zen Alakanten. Bestalde, Kadete mailan, **Danel Casais**ek Gasteiz eta Abadiñoko sariak irabazi ditu, eta 3. sailkatu da Elgoibarren; **Aimar Erostarbe** 2. egin du Gasteiz, Elgoibar eta Zumaian. Lehen urteko kadeteen mailan, bestalde, **Unai Cueva** 2. sailkatu da Idiazabalen eta 3. Zarautzen.



GIPUZKOAKO ITZULIA OÑATIN Ekainaren 20an junior mailako Gipuzkoako Itzuliko atarikoa jokatu da Oñatin, erlojupuekoa (Foruen plaza-Kale Zaharra, Lizaur-Ulma-Kanposantua-Urrutxu-Kanposantua-Bustinzulo-San Juan kalea-Enparantza). Bestalde, kadete mailakoentzako Olakua Saria ekainaren 16an (16:00) jokatu da, Gipuzkoako txapelak jokoan egongo dira.

Ainara Uribarri Espainiako txapeldun

MENDI LASTERKETAK Ainara Uribarri mendi korrikalariak Espainiako txapelketa irabazi du 23 urte azpikoen mailan. Maiatzaren 12an Otañesen (Kantabria) jokaturako txapelketan 23. sailkatu zen oñatiarra sailkapen orokorrean, Euskadiko selekzioa ordezkatuz, eta lehenengo promesa mailan. Orain Espainiako selekzioaren deia jaso du Ainarak Europako txapelketan parte hartzeko abuztuaren 4tik 6ra L'Aquila (Italia).

XABI LETE IRABAZLE. Maiatzaren 25ean Araian jokatu zen Mitxarro Bira irabazi zuen Xabi Letek, 2:38:27an osatuta 27,5 km.-ko ibilbidea.



Eskolarte mailako tenislariak bikain

TENISA Aloña Mendiko infantil mailako tenislari gazteak maila bikainean lehiatu dira Gipuzkoako eta Euskadiko eskolarte mailako txapelketetan. Unai Gomez, Jokin Madina eta Martin Lazkanoiturburuk osaturako taldeak, Gipuzkoako txapelketako garaikur nagusia eskuratu zuen Donostian Maiatzaren 18an. Astebete beranduago berriz, Unai Gomezek, brontzezko domina eskuratu zuen Getxoko Fadura klubeko instalazioetan jokatu zen Euskadiko txapelketan. Aloña Mendiko entrenatzailearen esanetan "urte osoan egindako lanaren saria" izan da.



Guridi txapeldun



ATLETISMOA Beñat Guridi Aloña Mendiko korrikalariak 20 urte azpikoen Euskadiko txapelketa irabazi du 1.500 metroko lasterketan (4:37.60). Igor Mugarza (sub-18) taldekidea ere podiumera igo zen, 3. tokian, 3.000 metrokoan (9:27.74).

Etxegarai nagusi Zaramagan

PILOTA Madalen Etxegarai Aloña Mendiko pilotariak Zaramagako txapelketa irabazi du. Uxue Osés bikotekidearen lekua Leire Oskoz nafarraik bete zuen finalean, eta 18-16 nagusitu ziren.



USAKO

Ekainaren 8an
hasiko da bainu denboraldia
Arratsaldero (15:00-20:00)
sorosle zerbitzua egongo da,
astelehenetik igandera.

E kainaren 8an hasi eta irailaren 8ra arte luzatuko da bainu denboraldi ofiziala Usakon. Hiru hilabete horietan sorosle zerbitzua jarriko du udalak bertan, egunero, astelehenetik igandera, 15:00etatik 20:00etara. Ekainaren 22tik abuztuaren 4ra eta abuztuaren 24tik irailaren 8ra bi sorosle egongo dira, eta gainerako egunetan bat.

Urtero lez, *Buceo Euskadi* elkarteko kideen eskutik ur putzuaren hondoa garbitu du udalak, bertan egon litezkeen zuhaitz-adar eta bestelako elementu arriskutsuak atera eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko asmoz.

Gainera, udala arduratuko da berdegunea eta aldagela nahiz komunak garbitzeaz, eta azken urteetan bezala, aparkalekua egokituko da Zañartu auzoan. Gogoratu, debekatuta dagoela Olateko errepidearen bazterretan aparkatzea.

HERRIBUS ZERBITZUA USAKORA

Aldizkaria ixteko orduan zehaztu gabe zeuden egutegia eta ordutegia, baina azken urteetan bezala, Herribusak bi joan-etorri egingo ditu egunero Usakora.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

Aran
Hernández

Zure ETXEA eguneratu gutoeneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko ogia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

» Filosofia kooperatiboa **sinfonia** bihurtuta

Humanity at music

MONDRAGON Taldearen esperientzia kooperatiboa kantuz, dantzaz eta irudiz jasotzen duen ikuskizuna taularatuko dute ekainaren 9an, parrokian (19:30). Ganbara Abesbatzak, Arrasate Musikaleko orkestrak eta Oñatz Dantza Taldeak parte hartuko dute, besteak beste.

Igande honetan (ekainak 9) 'Humanity at Music' sinfonia bertatik bertara entzun eta ikusteko aukera izango dugu San Migel parrokian (19:30). MONDRAGON taldearen esperientzia kooperatiboaren historia, oraina eta etorkizuna artearen bidez erakusteko sortutako ikuskizuna da; kooperatibagintzaren balioak musikaren, dantzaren eta emozioen bidez transmititu nahi dituen egitasmo handia.

Artista handien elkarlanari esker sortutako proiektua da. Zineman sarituenetako bat den Fernando Velazquez musika konposatzaileak (*Lo imposible*, *El orfanato*, *Un monstruo viene a verme...*) sortu du MONDRAGONeko kooperatibagintzaren soinu-banda; Jon Mayak (*Kukai* dantza taldea) prestatu ditu koreografiak, Jon Sarasuak ipini dizkio hitzak sinfoniari, eta Maite Mutuberriak egin ditu ilustrazioak. Gainera, hainbat idazle eta bertsolarik ere parte hartu dute proiektuan.

OÑATIKO EMANALDIA

Arrasate eta Aretxabaletatik pasa ondoren, igandean iritsiko da *Humanity at Music* ikuskizuna Oñatira. Ederra izango da: 80 abeslari (Ganbara Abesbatza, Ganbara Txiki, Hots), Arrasate Musikaleko Orkestrako 60 musikari, Oñatz dantza taldeko kideak, Andoni Egaña bertsolaria eta herriko bertsolari eta txistulariek parte hartuko dute. Herriko kooperatibetako eta Mundukide-ko kideek ere hitz egingo dute, izan ere elkartasun proiektua ere bada *Humanity at Music*, eta proiektuak lor ditzakeen etekinak elkartasun ekimen batzuk sustatzeko erabiliko ditu Mundukidek.

Sarrerak (5€) udalaren plataformetan eta Txokolateixan eros daitezke. Egunean bertan ere egongo dira salgai parrokian.



LIBURU SOLIDARIOA

Humanity at Music proiektuaren baitan MONDRAGONen errelato berria egiten duen liburua ere plazaratu dute.

Saldutako liburu bakoitzeko euro bat bideratuko da MUNDUKIDEk sustatzen dituen elkartasun proiektuei laguntzera

Lehen mailako artistek sortua

■ **Fernando Velazquez**
Zineman sarituenetako den konpositoreak sortu du musika

■ **Jon Maya**
Kukai taldeko dantziariak prestatu ditu koreografiak

■ **Jon Sarasua**
Hitzak jarri dizkio proiektuari

■ **Leire Bilbao, Katixa Agirre, Irati Jimenez, Gloria Totorikaguena eta Pili Kaltzada**
Sorkuntza litararioaren ardura izan dute

■ **Maite Mutuberria**
Irudiak sortu ditu liburu eta ikuskizunerako

■ **Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Julio Soto, Jone Uria, Oihana Iguaran, Xabier Igoa, Amets eta Madalen Arzallus**
Bertsoak sortu dituzte

caravanas



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

RAUL GARCIA / ULMA TALDEKO LEHENDAKARIA

"Kultura eta arte ikuspegitik ikuskizun bete-betea da *Humanity at Music*. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditut"

MONDRAGON Taldeko herriko kooperatiben eskutik (Ulma Taldea, Fagor Industrial, Lana eta Mondragon Unibertsitatea) *Humanity at Music* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu igandean (ekainak 9) Mikel Goiaingeruaren parrokiari (19:30). Raul Garcia ULMA Taldeko lehendakariak eman dizkigu ikuskizunaren inguruko azalpenak.



Nondik nora sortzen da *Humanity at Music* proiektua?

MONDRAGON Taldeak sustatu eta erakunde ezberdinen laguntzarekin sortutako proiektua da. Esperientzia kooperatiboaren izaera eta baloreak artearen bidez gizarteari helarazteko egitasmoa.

Artista handien elkarlanari esker sortutako proiektua da. Eraitza ere halakoa al da?

Bai, Arrasateko estreinaldian ikusteko aukera izan nuen, eta ikuskizun ederra da, benetan. Artista handiek hartu dute parte sorkuntza prozesuan: Fernando Velazquezen musika, Jon Sarasuaren hitzak, Jon Mayaren koreografiak, Maite Mutuberriaren ilustrazioak... Arte diziplina ezberdinak (musika, dantza, kantua, bertsoak...) uztartzen dituen espektakulua da.

Artistikoki oso ederra da, eta hitzen bidez transmititzen dituen mezuak ere politak eta sakonak dira, kooperatiben iraganaz, orainaz eta etorkizunaz. Azken batean, kooperatibak zer diren eta gizarteari egin dioten ekarpena zein den azaltzea da helburua.

Nolakoa izango da Oñatiko ekitaldia?

Arratsaldeko 19:00etan ekitaldi xume bat egingo dugu Foruen plazan, Andoni Egañak gidatuta, bertan dauden herritar guztiekin partekatuz. Gero parrokiara joango gara eta 19:30etan hasiko da ikuskizuna. Arrasate Musikaleko orkestrak, Ganbara, Ganbara Txiki eta Hots abesbatzek, Oñatz dantza taldeak, herriko txistulari eta bertsolariek... jende askok parte hartuko du eta ikuskizun ederra izango da. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditut; bereziki kooperatibetan diharduen jendea, baina gainerako herritarrek ere bai, noski.

Ikuskizunaz gain, elkartasun proiektua ere bada *Humanity at Music*, ezta?

Bai, garbi geratu behar da elkartasun baloreak ez direla mugatzen kooperatiben arteko elkarlanera. Munduan jende asko dago laguntza beharrean, eta guk gure aletxoak ipini nahi dugu MUNDUKIDEk munduan zehar dituen elkartasun proiektuei lagunduz. Hala, proiektu honek sor ditzakeen etekinak proiektu horiek sustatzera bideratuko ditugu Mundukideren bidez.

"Mondragon taldeko kooperatiben izaera, baloreak eta esperientzia artearen bidez transmititzeko asmoz sortu dugu *Humanity at Music* proiektua"



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

Oteizaren apostoluek 50 urte


Erakusketak, hitzaldiak, argitalpenak eta lantegi pedagogikoak antolatu dituzte Oteizaren lana, garapena eta esanahia ulertzeko

50 urte betetzen dira Arantzazuko basilikan Oteizaren apostoluak eta pietatearen irudia jarri zirela, eta hori gogoratzeko eta, batez ere, Oteizaren lana, garapena eta esanahia ulertzeko, **Oteiza eta Arantzazuko estatuarria, 1950-1969** programa antolatu dute Jorge Oteiza Fundazio-Museoak, Arantzazu Gaur fundazioak eta Arantzazuko frantziskotarrek.

BI ERAKUSKETA

Programaren baitan **bi erakusketa** egingo dira. Bata Al-tzuzako (Nafarroa) **Oteiza Museoan** (ekainak 19-urriak 27) eta bestea Arantzazuko **Gandiaga Topagunean** (ekainak 28-urriak 27). Al-tzuzakoan, prozesu artistikoaren bilakaera azalduko da; hau da, Arantzazuko fatxadara iritsi arte Oteizak jorratu zituen bilaketa kontzeptual eta sinbolikoak. Arantzazuko erakusketan berriz, Oteizak Arantzazun burutu zuen esku-hartzearen kontakizun kronologikoa egingo da, hamalau urtez apostoluak bide bazterrean edukitzera behartu zuten elizaren galarazpen eta betoen zergatiak azalduz. **Bisita gidatuak** ere egingo dira: ekainaren 22an Oteiza museokoan, eta ekainaren 29an, Gandiaga topagunean.

Erakusketek gain, Oteizaren Arantzazuko proiektuaren inguruko bi argitalpen eta, batez ere gaztetxoei zuzendutako lantegi edo tailer pedagogikoak ere egin dira. Gainera, irailaren 21ean, Oteizaren obra Arantzazuko basilikako fatxadan ipini zuteneko 50. urtemuga ospatzeko ekitaldi nagusia egingo da Arantzazun. Ikus egitarau osoa www.museoteiza.org atarian.



Oteizaren apostoluak 14 urtez egon ziren errepide bazterrean elizaren betoaren ondorioz, eta 1955eko abuztuaren 30ean inauguratu zen basilika berria fatxadako dekoraziorik gabe

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✚ Heriotza	✚ Istripuak	✚ Etxebizitza
✚ Autoak	✚ Ontziak	✚ Aurrezkia
✚ Bizitza	✚ Osasuna	✚ Laborantzia

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

'GALAPOTE'

Irazan Antzerki Guneko gazteen ikuskizuna

EKAINAK 15, GAZTELEKUAN, 20:00

Irazan Antzerki Guneko gazteen taldeak gala berezia eskainiko du ekainaren 15ean, Gaztelekuan, 20:00etan. Pintxoak eta edatekoa ere egongo da ikusleentzat, eta hortik izenburua: 'Galapote'.

Estilo ezberdinetako musika taldeen *playback* lehiaketako finala antzeztuko dute ikuskizunean. Kantuan eta dantza eginez, musika talde ezberdinak imitatu beharko dituzte aktore gazteek, eta ikusleek erabakiko dute zein den irabazlea. Tartean, baina, ustekabeko gertakari batek hankaz gora jarriko du lehiaketa, eta gala bera ere kolokan.

Irazan taldeko gazteez gain, beste gonbidatu berezi batzuek ere parte hartuko dute galan; 20 bat lagun guztira. Herritar guztiak, heldu eta gazte, gozatzeko moduko ikuskizuna izango da. Sarrerak (5€) Txokolateixan (aldeaz aurretik) edo Gaztelekuko sarreran bertan eskuratu ahal izango dira. Animatu!



SWING JAIA

Oñatiko Swing Elkartek antolatuta 'Swing Eguna' ospatuko da ekainaren 15ean. Lehenengo swing klase irekia egingo da herriko plazan (19:00) eta ondoren 20:00etatik aurrera dantzaldia egongo da Boga eta Onako plaza-txoetan.

Maidar Arregi Gipuzkoako txapelketara

BERTSOA Udazkenean jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea jokatu da maiatzan. Guztira 84 bertsolarik parte hartu dute eta puntuazio altuena lortu duten 34 bertsolariek egin dute aurrea. Tartean Maidar Arregi oñatiarrak, hirugarren puntuaziorik onenarekin.

TATIEGI, ESKOLARTEKO FINALEAN

Gipuzkoako txapela irabazi ostean, Aitor Tatiegik Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketako finalean parte hartuko du ekainaren 8an Sarako trinketea (11:00).



CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheka • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

Espeleoabentura

18 urtetik gorako herritarrentzat. Plaza mugatuak. Erreserbak: 943082000

9:30, Arrikruz

**Haur Ikuskizuna**

'Kutxa baten istorioak'. Umorea eta malabareak uztartzen dituen ikuskizuna.

18:00, Portu plazan

MUSIKA

EKAINAK 11 / 18:00

ALOÑA ABESBATZA ETA MUSIKA ESKOLA

Jubilatuaren Astearen baitan Pake Lekuko Aloña Abesbatza eTa musika eskolako taldeAK. **Santa Ana.**

EKAINAK 14 / 21:00

MUSIKA ESKOLAKOEN KONTZERTUA

Oñatiko *Tilikum* eta *Krisis* Aretxabaletako punk taldea. **Pako tabernan.**

EKAINAK 19 / 18:30

MUSIKA ESKOLAKOEN KONTZERTUA

Ikasturte amaierako kontzertua eta plaza-dantzen saioa. **Foruen plazan.**

EKAINAK 21 / 19:00

DOMEKETARROK

Korpus jai egitarauaren baitan. **Portu plazan.**

EKAINAK 22 / 19:00

'AFRIKA KANTARI'

Ikastetxeak Kantari ekimenaren ikasturte amaierako emanaldia, Txantxiku ikastola, Urgain eta Elkar Heziko abesbatzen eskutik. **Santa Ana aretoan.**

EKAINAK 22 / 20:30

DISKO FESTA**AGENDA**

EKAINAK 16 **arte**
Erakusketa

GARAGUNE ELKARTEKOEN ESKULANGINTZA
Adimen urritasuna duten pertsonen artelanak ikusgai
Kultur etxean,
egunero (18:00-20:00)

Korpus jai egitarauaren baitan disko-festa Nemux taldearekin. **Foruen plazan.**

EKAINAK 23 / 13:00

MUSIKA BANDA

Korpus prozesioa amaitu ondoren, musika bandaren kontzertua. **Herriko plazan**

ERAKUSKETAK

EKAINAK 7 - 28

KORPUS JAIAREN INGURUKO ARTELAN ERAKUSKETA

Iñaki Jauregilatzok Korpus jaiaren inguruan egindako lan ezberdinen erakusketa **Andrea Azkoaga dendan**

EKAINAK 19 - 30

SEILU ERAKUSKETA

Oñatiko CECA taldeak antolatutako erakusketa. Zaldien, tximeleten eta hegazkinen bildumak ikusgai **Kultur etxean**

EKAINAK 19 - 21

PAKE LEKUKOEN ESKULANAK

Pake Leku elkarteko eskulan ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai. Ordutegia: 18:00-20:00 **Pake Lekun**

JAIALDIAK

EKAINAK 8 /

ELKAR HEZI EGUNA

11:00-13:00 Askotariko ekintzak bi eraikinetan;
13:30 Kalejira HH-LHko eriakinetik kiroldegira;
14:30 Bazkaria. Ondoren musika emanaldiak, Batxi 2-koei omenaldia, DJ festa eta hainbat sorpresa .

MENDI IRTEERA

EKAINAK 9 / 9:00

PAGO MOTZAK ETA IKAZKINTZA. ARTASO BASOA

Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideek antolatutako bisita gidatua, Valentin Mugarza adituaren eskutik. 4-5 orduko iraupena. Informazioa eta erreserbak: 943 782 894 arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net

BISITA GIDATUAK

EKAINAK 8 - 9

EZKUTUKO ALT XORRAK

Ignaziotar Lurralde programaren baitan hainbat bisita egiteko aukera egongo da ekainaren 8-9an: Elgetako baselizak; Ezkioko San Migel; Azkoi-tia eta Ilustrazioa; Bedoñako Santa Eulalia; Legazpiko burdinola.. Izena emateko: 943796463 / info@ignaziotarlurralde.com

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es



AUZOETAKO JAIXAK

EKAINAK 7 - 9

OLARAKO JAIXAK

Ekainak 7: 19:00 Txorimaloak; 19:30 Presoen aldeko elkarretaratzea; 22:00 Kontzertuak (Lee-Kore, Txerrikumeak; Governors eta Txapelpunk).

Ekainak 8: 10:45 Haur jolasak; 12:00 Dantzariak eta trikipotea; 14:30 Auzo bazlaria; 19:00 Erraldoi eta buruhandiak. Talogileak; 20:30 Erromeria (Obeneuke eta DJ Iruñerria)

Ekainak 9: 12:00 Haurren MTB irteera; 12:30 Meza Bidaurretan; 13:00 Euskal parrillada eta herri-kirolak; 16:30 Mus txapelketa; 18:30 Herriko bertsolariak.

EKAINAK 28 - 30

ZUBILLAGAKO JAIXAK

Ekainak 28: 19:00 Pello basurdearen jeitsiera; 19:30 Auzo barbakoa eta kontzertua (Domeketarrok). Toka txapelketa (+16 urte); 22:00 Umore gaua.

Ekainak 29: 11:30 Haur parkea; 12:00 Meza; 13:00 Gazte toka txapelketa; 16:30 Haur parkea; 17:00 Mus txapelketa; 19:30 Diskofesta (Gauargi); 22:00 mozzorro lehiaketa eta suak.

Ekainak 30: 11:00 Meza; 11:45 Luntxa jubilatuentzat; 12:45 Dantzariak; 13:15 Pilota partiduak; 17:00 Txorimaloak; 17:30 Zinta lasterketa; 18:30 Txokolatada eta txorimaloak; 19:00 Umore show-a (Bocabeats monologoak).

LIBURUTEGIA



Hilleko gomendioa

Uxue Alberdik 15 bertsolari elkarrizketatu ditu LISIPE-ren bosgarren ale honetan. Gizon publikoaren osagarri rola betetzen duen bitartean, emakumea (singularraren) onartua da gizonen espazioetan, baina gizonenak dira espazio publikoak.

Liburua



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Ekainak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27.
Uztailak 5, 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Ekainak 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30.
Uztailak 8 eta 9.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Ekainak 12, 13, 21, 22 eta 23. Uztailak 1 eta 2.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Ekainak 6, 14, 15, 16, 24 eta 25.
Uztailak 3 eta 4.

ZINEA



Ekainak 7 - 10

NAGUSIAK:

Rocketman

ZINE KLUBA:

Ez dago emanaldirik

GAZTETXOAK:

Ez dago emanaldirik



Ekainak 14 - 17

NAGUSIAK:


Mejor que nunca

ZINE KLUBA:

Ez dago emanaldirik

GAZTETXOAK:

Ez dago emanaldirik



MERKATU TXIKIA

KLASE PARTIKULARRAK Emango nituzke Oñatin ekaina eta uztailan. 18 urteko neska. Psikologiako lehenengo maila gainditu dut eta Advance maila jasoa dut. Deitu: 688 602 694.

GARAIEA SALGAI / ALOKAGAI

Olakua auzoko 7an. Interesatuak deitu: 695 783 080 / 943716038.

GARAIE ITXIA SALGAI

Ugarkalde auzoko 18 zenbakian. Ate automatikoa eta 29m². Tel.: 652 735 405

ODOL ATERALDIA

EKAINAK 7 / 17:00-19:00

Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, kalea 18), 17:00-19:00

MASAJEA ETA TERAPIA ALTERNATIBOAK

- Mina ekiditeko alternatibak
- Lumbagoa, bizkarra, lepoa eta askoz gehiago

CHAOWEN

Kalegoieba 1. behea
Oñati

688 682 199
697 943 477

JUANJE MARGOAK

T. 627 818 247



(*) Itten: arrastua, pistia

Itten bat

>> Jakingarria

Baserri izenak (2)

Herrixan badittugu beste baserri batzuk, ostera, euren izena ogibide edo lanbide batetik datozeiñak, hau da, adierazten doskueiñak etxe horretan noizbaiten bizi izan zala lanbide hori ekuan norbait. Ogibidiak etxiari emun xao izena. Sail honetakoak dittugu, beste batzuen artian, *Argiñena*, *Arotzena*, *Banastagingua*, *Barberokua*, *Errementarikua*, *Kamiñeruena*, *Kapagingua*, *Maixokua*, *Porteruena*, *Soldadukua*, *Txipitzaillekua*, *Unaingua*, *Upagingua*, *Urtzaillekua*....

Upelak egitten zittuana upagiña zan, eta bera bizi zan etxiari *Upagingua* izena jarri xakon. Unaiak ('ganaduzain' edo 'behizain' berba ezagunaguak gure artian) behiak zainketan zittuan eta haren etxia *Unaingua* zan. Artillia garbittu eta kardaatu ondoren mantarrak, hau da, polaiñak-eta egitten zittuana kapagiña, eta bera bizi zan etxiari, *Kapagingua*. Banastak egitten zittuana banastagiña, eta bizilekua, *Banastagingua*. Burdiña urtzeen ebena urtzailia eta haren bizilekua, *Urtzaillekua* eta, azkenik, burdiñola txiki bateko nagusixa txipitzailia zan eta haren bizilekua, *Txipitzaillekua*.



Banastagingua
(Uribarri)



Kapagingua
(Berezaio)



Txipitzaillekua
(Zubillaga)



Unaingua
(Garibai)



Upagingua
(Zañartu)



Urtzaillekua
(Zubillaga)

>> Ezetz asmau

Lotu ezkerreko zutabeko izenak euren adiñarekin edo egoeriarekin:

(Kontuan izan jarritako adin tartiak erreferentziazkuak dirala, eta sailkapen horrek gutxi-asko orain arteko gizarterako balixo izan dauela)

- | | |
|---------------------------------|--|
| 1. Aittajauna / amandria | a. 18 hillabete arte |
| 2. Mutil edo neska hazitxua | b. Illobak dittuena |
| 3. Aguria / atsua | c. 12 urte arte |
| 4. Mutilla / neskia | d. Ezkonbageko edadekua |
| 5. Mutikotia / neskatiillakotia | e. Behin ezkonduakuan |
| 6. Titiko edo mantetako umia | f. Edadeko pertsonia |
| 7. Gizona / andria | g. 3 edo 4 urte arte |
| 8. Mutikua / neskatiillia | h. 18 urtetik aurrera ezkondu bittartian |
| 9. Mutilzaharra / neskazaharra | i. 13 eta 18 urte artekuak |
| 10. Umia | j. 10 urte arte |

Erantzunak: 1b, 2j, 3f, 4h, 5i, 6a, 7e, 8c, 9d, 10g

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIKAK



San Migel eta apostoluen *jaztetxiak*

Makinatxo bat ofatiar eta kanpotar faten da Korpuzti egunian Santa Anara, prozosiñua hasi baiño ordubete lehenago-edo, **santu bizixak jazten** ikustera: hau da, **hamabi apostoluak, Jesukristo** eta, batez be, **San Migel**. Garai bateko elizan, orain ikuskizun-leku bihurtutakuan, egitten da hori: azkenaldixan **Minerva** kofradixako hamalau kidiok areto horretako eszenarixoa gaiñian itxura-aldaketan dittue.

Baiña, gaur egun jente aurrian egin arren, ezta beti hala izan. Sasue batian **era ixa ezkutuan buruketan zan santuen jazte-prozesua**. Santa Ana elizako **sakristixan** aldaketan ziran hamabi apostoluak eta Jesukristo; San Migeleri, barriz, komenturako sarreran eguen **lokutorixuan** ipintten otsain armadura astuna eta gaiñontzeko apainddura dotoriak. Lokutorixua komentu eta monasterixuetan, klausurakuetan batez be, kanpoko bixitentzako egoten dan geliari esaten xako. Berba egitteko lekuari.

Horrek holaxe jarraitu eben, gutxi gora behera, Santa Anako monjak Zubikoatik Garagaltza auzora fan ziran arte. **Komentua 1980ko hamarkadan sakon barritzau zan**, ikuskizunetarako nahiz hitzaldittarako aretua modutuaz, eta ikastolarako gelak moldauaz; harrezkero, urte gutxiren buruan, **kofradixakide danak leku berian gertaketan hasi ziran** prozosiñorako, sasue bateko elizan. Gerora, herrittarairi ikusteko aukeria emun xaten, eta hartara, **lehen eginkizun sekretu samarra zana Korpus eguneko atal publiko eta ezaguna bihurtu xaku**.

Gaurko fotografia honeittan garai bixak ikusi zeikei. Batian **San Migel, komentuko lokutorixuan jantzi ondoren, ate zaharretik urtetan agiri da**; ezkerreko banderaduna **Gregorio Lizarra Etxatxo** da; eskumako emakumia barriz, **Paulina Kernstock**, jazte-lanetan lagunketan euenetako bat; San Migelen atzetik Bixaingo **Elias Sagastizabal** dator, Ama Birjiñiaren errepresentaziñua egitten ebena, baiña jazkera berezi barik; aspalditxuan emakumiak beteten daue pertsonaje horren papela.

Beste argazkixan **aretoko eszenarixoa gaiñian dago San Migel**, atzeko erretabluak erakusten doskunez. **Tere Letamendik** azkenengo begiradia botaten daguela emuten dau, goiangeruaren pelukia, kareta eta kaskua ondo egogittuta geldittu ete diran konprobau guran-edo. Fotografia bata 1970ko hamarkadakua izan leike eta bestia 15-20 urte beranduagokua. Horra ba, labur antzian azalduta, **San Migelek eta apostoluak Santa Ana barruan euki izan dittuein jaztetxe desbardin batzuk**.

Fotografia haundixa Udal Artxiboko Arzuaga funtsekua da eta Izar Salaberriri esker eskuratu dogu. Txikiña geure etxeko argazki-bilduman agertu xaku.



ekainak 7

OMENALDIA ERRETIROA HARTU DUTENEI

*Zuei esker,
garena gara!
Mila esker*



Grupo ULMA, S. Coop.

Garagaltza Auzoa 51, 20560, Oñati (Gipuzkoa) • T 943 25 03 00 • www.ulma.com • grupoulma@ulma.com